

“Egipcios, bereberes, guanches y vascos”, intuizio filologikoaren bidea?

Luis Mari Mujika

Sarrera

Aspaldidanik gertatu da euskara han-hemen bere aintzinasunagatik solte edo bitxi suertatzen diren hizkuntzen giltzarri. Hain zuzen, egungo Europan euskara bere isolamendua eta jatorriaren lluntasunagatik, aitzakia eraso bilakatzen da edozela misterio linguistiko askatzeko, nahiz jarrera horiek maiz lerrakuntza intuitibo, errati eta ausartetarako bide eman.

Euskararen esparruan tubalismoa eta euskara-iberismoaren ildo fantasiotsuak ertarotik datoz, eta, behin XVIII, mendea ezkeroz, batez ere, Larramendi eta gero Hervás, G. Humbolt eta Astarloaren eskutik, XIX. mendea ere ziprztinduko dute. Gerora euskara eta kaukasiar hizkuntzen harreman-hauziak sortuko ziren Dumezil, Lafon eta K. Boudaren eskutik, besteean artean. Beste batzuek afrikako hizkuntzetara –bereberrera–, adibidez, hedatu zituzten Iritziak, K. Mukarovkyk, adibidez. A.Tovar-ek 1980. urtean *Mitología e Ideología sobre la lengua vasca* delakoan, batez ere, teoria tubalista eta euskaro-iberiarren ikuspegia eskaintzen digu, teoria horiek, nolabait, mitologiaren barruan sartuz. “La mitología terminó por convertirse en Ideología, y la rutina y la ignorancia, en circunstancias desfavorables y peligrosas” (11 or.). Tovar-ek, nahiz euskararen aintzin-hizkuntza batzuekiko parametroak eraiki –gure ustetan aski urriak– ez du zailtzarik vasco-iberismoaren prezientifikotasuna arbulatzeko. “Los

autores vascos, en sus apologías, no se distinguen por el rigor de su crítica. Humillados por la consideración del vascuence como inculto y rudo, lo que hacen primordialmente es defender su lengua y buscar en su antigüedad patente de nobleza... En el siglo XVIII el fanatismo y la beatería del clima de que son síntoma los falsos cronicos impidieron todo progreso" (12 or.).

Gure ustean, euskarak jatorriz lehen bezain misterios eta gantutsu jarraitzeak –eta horrek hizkuntzen sailkapenean dakarren isolamenduak– ez dio inori eskubide ematen teorizazioak eta hizkuntza distanteen arteko ezkutuko sareak eraikitzeko. Dena den, beste arloetan bezala, hizkuntzen harremanetan ere zientziak ukanen du azken hitza, eta horretarako, noski, testuen parekaketa ongi egitura-tuak izanen dira, soilik, azken froga.

Antonio Arnáiz Villena eta Jorge Alonso García irakasleak euskararen esparrura hurbildu dira, berriro, berarengan bereberra, guantxea eta egipziera bezalako hizkuntza urrunen giltzarria atzematen dela aldarrikatuz. Hedadura geografiko –eta, batez ere, urruntasun filologiko nabariegia– daude hizkuntza horiek eta euskararen artean, gure ustean, idorokuntza horri oraingoz oneritzia emateko. Egungo ikerkuntza filologikoak –kultura aurre-indoeuroparraz, egipziera, Ipar-Afrika eta guantxeen hizkuntzel buruzkoak– oraindik hasimasieta daude, eta arriskutsu gertatzen da gure autoreen *Egipcios, bereberes, guanches* y *vascos* izeneko liburukiaren edukia onartzea bertakoa hedadura geografiko zabaleko eta aintzinasun gaitzeko hizkuntzetara bideratzen delako. Baldin euskara toki isolatu eta distantetan atzemaniko guantxea, bereberra edo egipziera bezalako hizkuntz-guneen (eta aintzinako *couche* kultural zabalago baten) interpretapen-giltza bezala jarri nahi balitz, tesia oraingoz probakizun geratzen da, gure ustean.

Guk eginen dugun kritikak helburu filologikoa du, soilik, hizkuntzalaritzaren esparrura mugatuko baita, eta ez liburuan antropologia, erlijioa eta, batez ere, genetika ukitzen duten kontzeptuetara. Arlo horietan gure autoreek eginiko ikerketek errespetua merezi dute. Bestalde, hipotesi bezala, gerta daiteke euskal etniaren eta mintzaiaren (hots, euskararen) ibilbideak parekideak ez izatea. Gure kritika, bada, alderdi filologikoel (eta, bereziki, lexikaleel) atxikia gartuko da.

1.- Lanaren alderdi lexikala

Gu ez gara ez bereber, ez guantxe, ez egiptoar hizkuntzen jakitun, nahiz adituengan ere guantxea edo egipzleraren ezaguera –hizkuntza hilak izaki– oraingoz erlatiboa izan. Mugakizun horrek, hala ere, ez digu eragozten autoreek hainbat Inskripzio, epigrafi, hieroglifiko eta bestelako testuri euskararen giltzarritik eraikitako Intepretapenel gure kritika jasotzeko. Gure oztopoak, nagusiki, euskarak bere *corpus* lexikalean dituen elementu latino-erromanikoen eragina behar hainbat kontuan ez hartzetik dator, ezen elementu lexikal horiek *berantak* dira euskaran (batzuk ertaro eta errenazimendukoak), eta, ondorioz, ez dira egoki orain hiru edo lau mila urtetako hieroglifikoak –edo Kristoren aurretiko beste Inskripzio zenbait– sinisgarritasunez Irakurtzeko.

Euskal lexikoaren geruza latino-erromanikoa aitzinean dugula testuen Interpretapen-azterketa eginen dugu. Horiek dira gure mugak, eta zientifikoak direla uste dugu –ez Intuzio hutsezkoak–, ezen egun erromanisten artean euskal lexikoaren alderdi latino-erromanikoak aski ezagunak dira.

Dudarik gabe, euskal hizkuntzaren egitura morfologikoa (eta bere lexikoaren zati bat) ez da hizkuntza Indoeuroparren sallean sartzen. Euskara, noski, egituraz aurre-Indoeuroparra da, eta egungo hizkuntza ezagunen eremuan Isolatuturik dago. Hortik, ordea, euskara beste hizkuntza hildakoen –eta Isolatuen– Interpretapen-giltza dela uste izatea, tamalez, probakizun geratzen da oraingoz. Teoria filologikoetan ere, noski, oro aportaturiko argudioen mende dago.

Bestalde, euskarari halako protagonismoa egozteko, beharrezkoa suertatzen da, lehenik, bere morfologia, sintaxia, fonetika –eta, batez ere, lexikoaren– ezagupen sakona –ez gutxi-gorabeherakoa– edukitzea. Horrek esan nahi du testuen Interpretazio serio bat garatzeko euskal deklinabideen posizioa, aditzen egitura, bokalismo eta kontsonantismo fonetiko eta lexiko-geruzen ezagupen zabala derrigorrezkoa dela. Gainera, euskal lexikoaren eremuan ezin da Ignoratu egitate nabarmen bat, alegia, gure lexiko tradizionalaren ia bi herenak (% 65 bat, gutxi gora-behera) jatorriz latino eta erromanikoak direla. Beraz, gure lexiko zaharrean anitz latin antzinekua eta lehen ertarotik heldua da –eta beste anitz, berriz, gaskoinera, gaztelania, frantsesa edo aragoieraren bidez sartua–. Egia hori kontuan izan gabe, nekez has gaitezke Kristoren aurretiko papiro eta epigra-

flen irakurketa *euskararen* zehar egiten. Hemen azterkizun den auzi filologia ezin da seriozki ezarri, lehendik, Schuchart, Vinson, Meyer-Lübke, Michelena, J. Caro Baroja, Tovar, Agud, Corominas eta beste erromanistek euskal lexikoari buruz duten iritzia. Gu gure *Latina eta erromanikoaren eragina euskal lexikoan* (LEEE) tesi doktora, ASJU aldizkaria argitaratzen etorri den *Diccionario Etimológico Vasco*, L. Michelena eta Corominasen aportazioez baliatuko gara liburukiko interpretazio zenbaiti kritika egokia egiteko. Beraz, pretentsio hain zabaleko lanak sinesgarritasuna bermatzeko goian alptaturiko autoreen aportazio lexikalak argitan ukan beharrekoak ditu.

2.- Alderdi lexikalak euskara-bereberraren erlazioan.

Goian adierazitako bidetik aztertuko dugu auzia, testuen irakurketan egiten den hitz zenbaiten jatorri latino-erromanikoa argitan utziz. Bereberra eta euskal lexikoaren alde amankomunak liburukiak laugarren kapituluaren 57. orritik 90. arte eskaintzen dizkigu, hitz-aula luzeak aurkeztuz.

Lexiko-taulekin hasi aurretik, 47. orrian bada inkurtsio etimologikorik berebererren mundu erlijiosoan islatzen den perpaus zenbaiten azterketan, non euskarari txertaturiko mallebu latino-erromanikoen lehen arazoa azaltzen den. KUR-ARAM multzo lexikalean *kur* (*creyente* itzulpenean) erroa ageri zaigu, erromanista zenbaitek (*a*)gur / (*a*)gurtu mallebuaren hondartzat (lat. *(au)gurium*-en zehar) jotzen duena. Garbiago oraindik, ABA (padre) lat. *aba(tem)* terminoaren erreferentzia dago (baldin Aranaren hebraierako neologismo beranta onartzen ez bada), gure *apaiz* (lat. *abbas* nominatibala) eta *abade* (lat. *abatem* akusatibokoa) ildo bereko mallebuak izaki. 52. orrian ZORASTRO ezagunaren geruza etimologikoan euskarazko *su* "fuego" eta *ur* "agua" elementuak atzeman nahia sinesgaitza egiten zaigu, ezen gure *soro* (lat. *solum*-en emaitza erromanikoa gurean) fonetikoki hurbilagoa litzateke, nahiz hori ere ezinezkoa izan mallebu beranta delako euskararen *corpus* lexikalean.

2.a) Tauletetako hitzen azterketa

Orriz orri joanen gara testuan interpretatzen den aportazio zenbait iruzkinak eta oharrak egiten. Lehenik elementu lexikalak ikusiko ditugu, gero alderdi fonetikoak.

l) 58-59. Orritako taulak

la) Alderdi lexikalak

Problematikoa egiten zaigu hurrengo hitz-andana testu bereberren interpragat izatea: ZERRATU > bereberrez *zerrabt*; euskal formula, dudarik gabe, gazt. *cerrar*-etik dator, eta lldo berekoa da *zerra* "apretado" ere. ZERRA > (golpear) *serrubbeg*; oztopo fonetikoak *serrubbeg* berebera *zerratu*-rekin lotzeko -azken belarearen presentziagaitik-; orobat, zailtasunak gazt. *cerrar*-erekiko (lat. *serare*-ren lldokoa), *bertsu* latineko *versus*-etik, *vertere* aditzaren partizipio bezala; bestelako jatorria bilatzea bidegabekeria litzateke. ANIMA > *elmant*; mallegu latino ezaguna *animam*-etik (euskarak *arima* disimilazioz ere ezagutzen duena). SEKO (*seco*) > *zekor*: hitza euskal errokatzat -eta ez gaztelaniar mallebutzat- hartzea arbulagarria lru-ditzen zaigu, hain nabaria izaki; **zekor* delakoan -semantika ez ezik- azken dardarkaria justifikatu gabe geratuko litzateke. ANDARI (quien lleva los cadáveres) > *ender*; gure usteen etimologia erromanikoa du, gaztelaniako *anda* eta -*ari* atzizkiaren lldotik. Cfr. *Corominas*, Breve Dic. Et. 50.

lb) Alderdi fonetikoak.

Beharrezkoa da gure fonetikako lege eta konstanteak kontuan izatea. Bereber hitzei euskaltasuna atxikitzeko, lehenago, gogoan izan behar dira gure oklusibak, bokaleen aldaerak, txistukarien presentzia, sudurkarien ezabaketak eta beste zenbait fenomeno berezi. Hona, bada, fonetikaren aldetik liburukian problematiko den etimologia zenbait:

BARA-IZEM (su nombre) > bereberrez *warisem*; ez dugu ezagutzen asimilazio bokalkoa jasan duen izenordearen (*bere*) beste kasu dialektalik. UDA (agua) > *udu*; ez da ezagun *ur*-aren *u/u* bokallismorik, baldin eta asimilazio beheranzkoa eman ez bada. IGERI (nadar) > *sigef*; onartezina fonetikoki, ezen euskal formulak ez dago bereber hizkuntzaren txistukaririk. SU-ATAN (*Satan*) > *Cidan*; euskarara *Satan* bibilikoaren zehar, beste inguruko mintzaileratara bezala; proposaturiko erro euskaldunak intuizio hutsak dira; fonetikoki, ez da zilegi (ia liburu osoan agitzen denez), *at(e)an* ordez "atan" formula sinkopatua erabiltzea. AKUK (mira) > *aka*; egia esan, ez dugu ezagutzen proposaturiko euskaran, baldin eta **ikus ezak* baten

aldakitzat hartzen ez bada; fonetikoki ez litzateke onargarria bokalis-
moaren aldetik.

II) 60-61 orriko taulak.

IIa) Alderdi lexikalak.

KUBA (*jarra, cuba*) > (*bereberrez*) *kubas*; ezin arbulatu euskaraz gaztelaniar jatorria (*cuba*), bere iturrian lat. *cuppam* dagoela (euskaraz *upa* ere eman duena). **MOKO** (*pico, punta*) > *magut*; onatezina bokalismoari begiratuta, ze bi silabetan o delakoa falta da; jatorriz erromanikoa *beko* delakoa, fr. *bec*, galizieraz *bico*. Cfr. REW (61-1, 82 n.20). **KALE** (*calle*) > *akal*; gaztelaniar mallebu nabaria, jatorrian lat. *callis* dagoela. Cfr. Corominas, Breve Dic.Et. 121. **GURGURAI** (*murmullo del arroyo*) > *gemgum*; euskaraz, antza, hitz onomatopelkoa da (eta fonetikoki onartezina bereber formularekiko). **MENDEBAL** (*oeste*) > *ataram* (fonetikoki, oztopo nabarmenez gain, *vendabal* erromanikotik jatorria hasierako ezpainkariaren ohiko nahasketaz. Cfr. LEEE (*Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*), 162,169. **BALA** (*ballena*) > *gaga*; gurea lat. *ballaenam*-etik bokalarteko sudurkariaren erorketaz. Cfr. L. Michelena, FHV,320. **AZERI** (*zorro*) > *ucen* (jauzi fonetiko onartezina bokalismoan bi hizkuntzetan; jatorriz lat. *asinarius*-etik (Cfr. ZRPh 41,564), bere ildokoak *Azenar*, *Aznar* bezalako deiturak. **KAMARRA** (*cangrejo*) > *kaimaru*. Ez da zilegi *kaimaru* (*camarón* litzatekena) eta *kamarra* (agian, euskarako *amarra* (diez) delakotik) nahastea. Cfr. LEEE, 113. **ZIAPE** (*mostaza*) > *ziber*; lat. *sinapem*-etik euskarara, hasierako txistukari apikalaren ordezeko aurredotsalaz). Cfr. L.Michelena, FLV 6, 197.

IIb) Alderdi fonetikoak.

ATXAMARTA (*anzuelo*) > *tasenart* (ez da onartzekoa ez kontsonantismoa, ez bokalismoaren aldetik). **EZE** (*verde, planta*) > *uzzu* (bokalismo onartezina). **SIETS** (*laguna, ciénaga*) > *sif* (bereberrean ez da justifikatzen gure azken afrikaria). **UDU** (*hurón*) > *berran* (fonetikoki *u* bokala ez dago bermatuta).

III) 62-63 orrietako taulak.

IIIa) Alderdi lexikalak.

AZAGARI (*zorro*) > *azagaz* (euskarazkoak kontsonantismoa garatu du bokalartean; etimologikoki golko *azaria*-ren ildokoa, lat. *asinarius*. L. Michelena, FHV 119. **TXITXAR** (*cigarra*) > *bziza* (nahiz oinarriz

onomatopelkoa ahal izan, gazt. zaharreko *chicharra* da formula hurbilena, REW,1897. KAKA (excremento) > *kakan*; hizkuntza anitzetan ematen da, haur-jatorria duen hitz expesiboa izaki. ABEL (ganado) > *belu jafelu*; gurearen jatorri zuzena lat. *habere*, konposakeran *abel* formula hartzen duela *-abeletxe, abelbide* kasuetan bezala-. Cfr. L. Michelena, FHV, 226. GALDA (arado) > *galla* (fonetikoki ez da onartzekoa *golde* (arado) "calor intenso"-aren esanahiaz nahastea, azkenekoa lat. *cal(i)dam*-etik datorrela; *golde* jatorrian lat. *culter* (cuchillo)-ren ildokoa, oklusibaren ozendura eta bokale irekieraz. GERRA > (guerra) *gura* (fonetikoki onartezina, *guerra*, dudarik gabe, gurera gaztelaniatik sartua delako; fonetikoki hurbilago eusk. *gudua*, nahiz jatorri berekoa ez izan. ZILLAR (plata) > *cellel* (*zillar* gurea hizkuntza indoeuropear batzuen ildokoa, *silubr* gotikoa edo *silver* ingelesa kontuan izanik). Cfr. L. Michelena, Fonética Hist.Vasca, 316.

IIIb) Alderdi fonetikoak

Oztopo fonetikoak dituzte, besteen artean: UGARAI (rana) > *garut* (non bereber formularen haserako bokalea falta den, zaien euskarazkoak *ur* (agua) delakoari erreferentzia egiten dion). ABEREKUME (cría de ganado) > *aberhuc* (bigarren osagala ez da justifikatzen fonetikoki, lehen osagala gurera lat. *habere*-tik datorrela, eta konposakeran *abel*- formula hartzen duela). MARRAZTI (*reptil*) > *menrad* (euskarazko dardarkaria falta da bereber formularen, eta, orobat, gure amalerako bokala. EGAA (L) (vuelo) > *Agug* (ez da errespetatzen euskal bokalismoa, eta gurean azken belarea falta da). AGER-ZAN (aparecer, difunto) > *agezzan* (nahiz fonetikoki hurbilla izan, morfologiazko arazoak hemen, bi elementu biltzen direla *-eta* lehenengoari indikatiboan galdu ohi ez den partizipioa erori zaiola-. ZAN-ITA (difunto segado) > *sanit* (Intulzio hutsa dirudi, *zan* eta *ita* (*ebagita*-ren sinkopa gaitza) bilduz; sintaktikoki *zan* delakoa euskaraz gibelean jarri behar da (*aita zena* = el padre difunto, eta hemen **ita zena* behar luke = lo que era segado). EGOM (hallarse) > *ekkim* (fonetikoki onartezina bigarren bokala justifikatzen ez delako).

IV) 64-65 orrietako taulak.

IVa) Alderdi lexikalak:

ESKLABU (esclabo) > *asekell* (mallebu erromaniko nabaria euskaraz; bereber-formula fonetikoki urruntzen da). SEGIZI. (cortejo, acompañamiento) > *segilli*. Euskarazkoa gaztelaniako *seguir*-en ildokoa da, eta formula jatorra *segizio* da *-io* atzizkia erromanikoa

delarik *-txikizio, amorrazio, ukazio* delakoetan ematen den bera-
 ERRU (culpa) > *arrut* (*erru* gurea gaztelaniako *erro* eta *yerro* formu-
 letatik, jatorrian lat.*errare*-ren eratorria dagoela). Cfr. LEEE, 156.
 NEKE (penalidad, hecho penoso) > *negi* (euskarazko *neke* lat.
necem-etik, belare zaharra gordez; *necem* delakoak gurean *fatiga*-
 -ren semantika du ezagunena). Cfr. LEEE, 16, 41, 68, L.Michelena,
 FHV 51,409. ABERE-GIZA (ganado-hombre) > *abergaz*. Erromanis-
 ta gehienek onartzen dute gure *abere* lat. *habere*-tik datorrela; dena
 den, hitz-osagaletan *abere-k abel-* formula hartzen du, eta *gizon-ak*
giza (baina lehen posizioan). Cfr. L. Michelena, FHV, 226. ABATA
 (asceta, anacoreta) > *abet*. Gurean *abata* mallebu latino nabaria,
abbatem-etik, eta *abadea* formula (herskari ozenaz) erromanikoa
 edo beranta, gazt. *abad*-eren ildokoa. Cfr. LEEE 104, Gavel RIEV
 12,314. GANIT (cuchillo) > *genui* (etimologia onartezina, gurea erro-
 manikoa baita, *canif* frantses-gaskoinaren ildokoa. Corominasen
 aburuan hitzak erro germaniarra du (DCELC 1, 648). EMAKUME (mu-
 jer) > *amettut*. Erromanista askorentzat lehen osagaia lat. *femmi-*
nam-etik datorren mallegua, *femina* nafar erromantzea, *hemme*
 biarnoarra, *femme* frantsesa kontuan haartzekoak izanik. Cfr. FEW
 4,4449). Bigarren osagaia, *ume/kume*, euskalduna da. ABA (padre
 religioso) > *abba*. Euskal *aba* (hortik *aberria* neologismoa) hebraie-
 rako *abba* baino ez da; *abbax / abbatem* latinoak, berriz, onartzekoa
 hemen itzulpenean "padre (religioso)" ematen baita. Cfr. LEEE 104,
 112, L. Michelena FLV 6, 167. GOILARE (cuchara) > *ygelt*. Euskal
 formula erromanikoa da, jatorrian *cochlearem* latinoak dagoelarik; al-
 daki eromanikoak *collara* aragoiarra eta *culhère* biarnoarra. Cfr.
 LEEE, 172-173. KAPA (capote) > *kebut*. Euskarazkoak, zalantzarik
 gabe, gaztelaniako *capa*-n du iturburu zuzena; bestelakorik
 pentsatzea (goiko *seko*, *zerratu*, *kuba* eta atnzekoetan bezala) teme-
 ritate hutsa litzateke. Euskarari, hizkuntza erromanikoak baino antzi-
 nagokoa izateak, ez dio eragozten -mendeetan zehar- bere *corpus*
 lexikalean Inguruko mintzaira erromanikoetatik hitz-andana esker-
 gata biltzen etortzea. Hori gure diakroniaren egitate da.

IVb) Alderdi fonetikoak:

BESO (brazo) > *fus/ bus*. Formula bereberrek ez dute justifi-
 katzen euskal bokalismoa. SU-UR-ARTIN > *sertin*. Oztopoak lehen
 bokalean, *u* bokaletik e-rako jauzia egitean; *atean* (en la puerta) >
atin-era sinkopa posible litzateke euskalkiren batean, baina probaki-
 zun geratzen da osaketa hori. ANA-AMA-ATA > *anemad*. Problemati-

koa hain sinkopa gaitza; euskarak normalean ez du oklusiba ozenik hitz-amaleran, eta liburu osoan azaltzen den *ana-(anaia /anae = hermano* ordezkoa) ez da, besterik gabe, jasotzekoa. ARRESI (muro, pared) > *arrab.* Bigarren eta hirugarren bokalak ez datoz bat bereber formularekin, eta gure txistukariaren presentzia ez dago justifikatuta. BURU (cabeza) > *qeru.* B kontsonantetik q-ra aldaketa ez da ohikoa (p-ra izanen litzateken bezala); bestalde, lehen posizioiko e bokala ez dago justifikatuta bereberrez.

V) 66-67 orrietako taulak.

Va) Alderdi lexikalak:

MOMO (fantasma, espíritu) > *mumu.* Momo eta *mumu* espresiboak dira, bigarren formula gaztelanian ere ezaguna izaki XVI. mendetik gerora, gutxienez. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 400-401. BALANTZA (desequilibrio, lucha) > *bellant.* Dudarik gabe, gureak gazt. *balanza* delakoan du Iturri, Ildo bereko beste formula *zalantza* (duda) dela disimilazioz. Cfr. L. Michelena, Apellid. Vascos, 65. *Bellant* delakoak ez du justifikatzen euskararen iturria, azken afrikaria airean geratzen baita, besteen artean. BABA (habas) > *bawen.* Etimologia beranta euskararen, lat. *fabam*-en iturrikoa; osagal beraz *baberrun* **faua romana* delakoa. Cfr. Rohlf, RIEV 24, 342. MARRUBI (fresa) > *urumi.* Euskal formulak *marrubium* latinismora garamatza, gurean *mallubi*, *malubi* AN, BN aldakiak ere ezagun direla. Cfr. LEEE, 87. PIKU (higo) > *tikurmas.* Zalantzarik gabe, euskal *biku*, *piku*, *fiku*, *iko* aldakiak lat. *ficum*-etik, hasierako ezpainkariaren ohiko aldaketekin. Iko B. formula erromanikoa da, bokalismoaren aldetik. Esan beharrik ez dago *tikurmas* bereberra fonetikoki asko urruntzen dela. Cfr. L. Michelena, FLV 6, 188). ATUN (atún) > *attun.* Atun mallegu gaztelaniarra gurean, jatorrian ar. *tûn* eta lat. *thunnus* kontuan hartzekoak direla. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 72. GABARRA (barco de carga y descarga) > *garrabu.* Euskal *gabarra* lat. *garabus*-etik, eta hau *karabos* grekotik. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 286. ANIL (colorante azul) > *anir.* Mallebu gaztelaniarra euskararen; aldaki bereberak Iturri berekoa dirudi, baina ez -nahitaez- euskararen lldotik jasoa. ARKU (arco) > *erkaus.* Lat. *arcum*-etik -edo bere eratorri erromaniko batetik-, onomastikan *Arkupe*, *Arkueta* Iturri beretik datozela. BARA (traba, trabado) > *agar.* Onartezina. Gure *baratu* ("parar, detener") lat. *paratum*-etik; lat. *parare*-k lehenik "preparar, disponer" esanahia eman zigun, eta gerora "detener"; horregatik euskaraz *baratu* "colocar" adieraz gain, "detener" semantika. Azterkizun du-

gun liburuan gehienetan *bara* formula, baina behin *baratu* bezala ageri da. Cfr. LEEE, 99, Corominas Breve Dic.Et. 440. *Albardatu* (albardar) > *berda*. Gurea *albardar* gaztelaniarraren eremukoa, jatorriz arabierarako *bárdaca* delakotik datorrena. Cfr. Corominas, Brev Dic. Et. 36.

Vb) Alderdi fonetikoak

ADATS (cabellera) > *azzar*. Fonetikaren aldetik lotezinak *d* eta *z* -*dz gisako afrikaziozko bide batetik ez bada-; gutxiago oraindik amalerako euskal afrikariaren ordezkotik dardarkaria. SUDUR (naríz)-etik *genjur* ondorio bereberraren onartezina, bokalismoa, urrun dagoelako. ESNE (leche) eta *efki* berreberraren lotezinak, txistukaria falta baita bereber formularen. BI-OTZ (corazón) > *ul*. Arbulagarria elkarren arteko fonemak biziki urrun daudelako, eta **bi-hots* ("dos ruidos") etimologia guztiz fantasiatsua da; beraz, -*otz* osagal afrikariduna oso urrun *ul* horretatik. ABA-ATA (sepultura-puerta) > *aabad*. Nekez onar daiteke fonetikoki gure *aoa/ahoa/aboa*-tik > *aba* formula, baldin eta ohikoa ez den apofonia eta sinkopaziozko prozedura ematen ez bada. Atea-ren *ata* ondorio fonetiko (liburu osoan ematen dena) posible toponimian, kasu ez-mugatuan (Valle de *Ata*, *Ataburu* Naf.) , baina noizbehinka **atea*. *Kar-aba-ata* (llamas-boca-puerta) delakoa interpretapen bihurria sontsonete hutseko bide batetik. A BERATSI (riqueza) > *adarim*; gaitza **aberatsi*-tik *adarim* horren bidea; kontsonantismoa urrun dago, eta azken silabako afrikaria falta da bereber formularen; bestalde, euskal *aberastu* eta **aberastarazi* -eta inola ez *aberatsi*- jatorrian latineko *habere*-tik -*ats* osagarria euskal atzizkia izaki-. ARGIDIR (alba) > *arfeyer*. Bokalismoa urrun, nahiz e-tik *i*-ra ixtura posible izan, semea > *semia*, ortzea > *ortzia* delakoetan bezala; lexikalki, ordea, *argidir* delako (*argi-dirdira* konposatu batetik) ekartzeak intuizioa baino ez dirudi.

VI) 68-69 orrietako taulak.

Vla) Alderdi lexikalak

BAZKARI (comida, banquete) > *akarred*. Mallebu latinoa lat. *pascere* (pacer, comer) delakotik, sc taldea gurean eusten dela; -*ari* atzizki latinoa erantsia du, aurARIA, argentARIA delakoetan ematen den partikula bera. Cfr. L. Michelena FHV. 246, LEEE 88. 269-270. Esan beharrik ez dago, *akarred* bereberraren eta euskal *bazkari* urrun daudela fonetikoki. *Karraska* (crujido) > *karras*; hitzak onomatopelara garamatza eroso, eta, ondorioz, hedagarri beste hizkuntza askota-

ra, euskarara jo gabe derrigorrez. *Zanga* (foso, zanja > *zanda*. Euskal formulak gaztelaniako *zanja*-ren ildoak sugeritzen du ("excavación alargada" gaztelaniaz, 1595 urtean; portugaleraz *sanja*). Cfr. Corominas, Breve Dic.Et. 621. *Araba* (uso, derecho) > *araba* (castigo, venganza). Itxuraz, euskal *araua*-ren aldaki kontsonantizatua, Mitxelena malliegu erromanikotzat dauka, nahiz hipotesi bezala eman. Cfr. L. Michelena, BAP 10, 375. *ARROA* (arroba) > *erbaá*. Gure *arro(b)a* gazt. *arroba*-tik zuzenean, gaztelaniaz formula arabiar *rubc*-en ildokoa izaki; euskaraz bokalarteko ezpainkaria galtzea ohikoa da. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 54. *AIZKORA* (hacha) > *askor*. Autore batzuek *aizkora* euskal *aitz* (roca)-eren etimologiatik ekarri dute gure ustean bide zuzenena lat. *asciolam* da, ohiko /r/ aldaketa eta sc-alderearen belarizazio zaharraz. Cfr. LEEE 70, 85, L. Michelena FHV 319. *KARDATU* (cardar) > *qardasz*. Besterik probatzen ez den batean, bide zuzenena gaztelaniako *cardar*, hasierako herskariaren ozenduraz; bere jatorrian *cardo* (lat. *cardus*) "peinar la lana antes de hilarla", ze ekintza hori *gardu* landarearen buruarekin egin ohi zen. Cfr. Corominas, Breve Dic.Et. 132. *Garden* "transparente", probableki, gast. *cárdeno*-tik, *cardus* / *cardinus*-en ildoak jarraituz. Cfr. L. Michelena, FLV, 2, 68 s.

Vlb) Alderdi fonetikoak:

ESARI > *eqqar* (txistukari-*ezak* bereber formularen euskararekiko lotura gaitzesten du). *IZAR* > *Izri*. Arbuizatzea bokalismoa eta dardakariaren posizioagatik, baldin eta metatesia eman ez bada. *ATEBAN* ("cada una de las puertas") > *adeban*. *At(e)ak* euskaraz oklusiba gogorra du, eta bigarren osagala kasu mugatuan ez egotea, hots, **ban-bana* ordez, ez da onargarri amalerako posizio horretan. *ZUBI* (puente) > *zegger*. *Zubi*-ren bokalismoak eta ezpainkariak proposaturiko etimologian (bi belarez hornitua -gg- azaltzen balta) gaitzesten dute iturria. *ZAKAR* (basura) > *zakubaix*. Pentsagaitza horrelako etimologia bereber formularen amalerako txistukaria ikusita. Ez da allegatzen sontsonetismo batera ere. *MUNAI* (donde) > *mana*. Bokalismoan *u*-tik *a*-rako bidea da legezkoa; ez da zilegi **munai bat nunai* (*nonnahi*) ordez ekartzea.

VII) 70 orriko taulak.

VIIa) Alderdi lexikalak:

ODOL (sangre) > *idim*. Arbulagarria, ezen /l/ o bokalen trukake-

ta ez da onartzekoa euskarazko iturri batekiko. Gainera, **idim*-ek ez du justifikatzen *odol* –en azken albokariaren eza. ABU (boca) > *abae* (palabra). A(h)o-tik *abu(a)* formulara bidea onargarri bada ere, bereber formulatan ez da ageri espero zitekeen ez o, ez u bokalik. IRI (ciudad) > *iri* (raza, pueblo). Hau da proposaturiko hitz guztietan –bestelako *zillar*, *landa* bezala– aspaldiko substraktu hedatuago batetik heldurikoa; jakina denez, bide berdinetik Iberiar epigrafietan *iri/illi* (Illiberri, Iriberry, Illunberri). Cfr. L. Michelena, Apellid. Vascos, 107.

2.b) Toponimoen erkaketak

Aztertzizun dugun liburuan ez dira falta euskal eta bereber toki-zenen arteko parekaketa bitxiak. Euskal toponimiak, agian, hedadura zabalagoa ukan zezakeen Iberia barruan, baina kasuan kasu aztertzekoa da hori ere. Hala ere, erkaketa etimologikoak sontsonetismo hutsaren ildoan arbulatu beharko luke, elementu fonetikoak hurbiletik hartuz (ostera edozelaz hizkuntza urruneko –hungariera, filandera, turkiera, bulgariera, adibidez– adieragarri bilaka daiteke, baina okerbidez beherago ikusiko dugunez). Hain zuzen, euskara Europako hizkuntzen artean isolamenduagatik exotiko gertatzeak ekar dezake erro anitzen giltzarria bera dela uste izatea. Arnáiz eta Alonso Irakasleek proposaturiko toponimo-zerrendetan, bada, zer dudatan jarri, zer gaitzetsi.

Lehenik kontuan edukitzekoa da F. Krutwig-ek bere *Garaldea* liburukian proposamen arbitrario zenbait egin zuela euskara etruskoa, *quantxea* eta Alpetako (Aosto arana) toponimia Euskal Herrikoarekin erlazioan jarritz. Orobat, kontsideratzekoa mende batzuk lehenago, tubalismaoren ildoan defendituz, Licenciado Pozas-ek, Larramendik edo Astarloak aurkeztutakoa. Adibide bezala ekartzekoak hemen Iberiar eta zeltiberiar esparruko toponimo zenbait –euskaratik intuizio hutsez interpretatuak–. Licenciado Pozas-en *De la antigua lengua...* (1587 urtea) originaletik hurrengo zerrenda, preiritzi tubalianoz: "*Sura, significa poblacion de madera. Surta, significa lugar fogoso. Oteca, significa poblacion fria. Aguina, agina lugar, que tiene dientes. Armactica, significa lugar armado o proueydo de Armas. Barrutha significa lugar cerrado. Sedala, Cedala, significa, contradicion del q. no tiene. Nigas, significa conformidad entre ambos, y de aqui le dixerô los Cunigas... vos soys conmigo*". Op. c 21.

Honelako etimologiak, esan beharrik ez dago, sontsonetismo arbulgarri baten zantzukoak dira "Zu nigaz" (Usted conmigo) > *Zuñiga* kasuan bezala. Ikus liburukia 14. orritik 20. arte. Gisa honetako etimologismoa gaitzetsia dago, soinuuen kidegoan, soilik, oinarritzen delako. F.Krutwig-ek *Garaldea (sobre el origen de los vascos y su relación con los guanches)* (Edit. Txertoa, 1978) liburuan antzeko lidoak jarraitu zituen. Euskal toponimiaren koerlazioak Aostako kasuan, adibidez, *Morgex Basson/ Bason, Say, Cogne Cervin, Excenex* delakoetara hedatu zituen, proposaturiko etimologiak osoro lasakak (gutxi-gorabeherakoak) izaki. Hedadura geografiko han hedatuan (Kanariar Iriak, Alpeak edo Kaledonia) modu arinean arakatzearriskytsu da, ezen euskal toponimia historikoak bere mugak Pirine, Errioxa eta Burgosko lurretan ditu. Euskal Herri zabal hipotetikoa (Akitaniara, Pirinlotara, hegoaldean Gaztelara hedatzen dena) kritika linguistikora menderatu beharrekoa da beste hizkuntzetan ere gertatzen denez, eta euskarara -mintzaira esoteriko eta zeharo aparta delako- hainbat erro biltzea Intulzio trakets suerta daiteke.

Segidan aztergarri dugun gure liburuko 81-97 orrietako toponimo bereber zenbait arakakatuko dugu. Erro lexikal eta lege fonetikotara joanen gara, berriro, batez ere, semantikak fidagarritasun urri duenean. Licenciado Pozas-en onomastika penintsulara mugatzen bazen, hemengoa hedadura geografiko urrunagotara doa, eta hori oraindik arriskytsuagoa izan daiteke.

l) Alderdi lexikalak

ATUA (el rebaño) > *Atua*. *Atu* "bagaje", "rebaño" jatorriz gaztelaniar mallebua (*hato*-ri iturri gotiko hipotetikoa atxikitzen dio Corominasek). Beste eratorria "atajo", "pequeña porción de ganado", *atajar* (*tajar*) hitzaren ildokoa. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 315. ALIMU (ánimo) > *Alima*. *Alimu animus latinoaren* aldaki erromaniko disimilazioduna da. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 42. BAGALLA (fruta de la haya) > *Bagala*. *Fagus* latinoaren bidetik lat. *fagallam*, eta bertatik euskarara *bagalla*, *f* > *b/p* ezpainkarien trukaketaz. Cfr. LEEE, 222, FEW 3140a. BERDOX (de color verde) > *Berdi*. Dударik gabe, bere osagalak *verde* erromanikoa eta -os(o) atzizkia. DAIA (guadaña) > *Daya*. Euskaraz ez da *daia* aldakirik, bai, ordea, *dalla*, *talliare*-ren eratorri erromaniko bezala (biarnoeraz *dalha*, gaztelania zaharrean *dalla*). Lat. *dacullum*-etik *dallu* / *dallo*. Cfr. LEEE, 42., L.Michelena,

FLV 6, 194. GURGURI (gorgojo) > *Gurguri*. *Gurguri gurea* lat. *curculio*-ren Iturrikoa, haslerako herskariaren ozendura ohikoaz. Cfr. LEEE, 40, 67, 85. GELETA (pesebre) > *Guelet*. *Geleta (gereta)* lat. *cletametik* (cancilla del seto) oklusibaren ozenduraz, eta *cl* taldearen ezabaketaz –anaptixiaren bitartez–. GETARIA > *Guetar*. Azkeneko adierazpenen etimologikoen aràbera, euskal toponimoak lat. *cetaria*-ra (cetaceus-en bidetik) garamatza, belare zaharra eutsiz herskarian. ERREPIA (ribera) > *Errebia*. *Erripa* euskal toponimoa (Naf.) lat. *ripam*-etik zuzenki, protetika garatuz eta bokalarteko herskariaren gorketa eutsiz. GEZAL (lugar de agua salada) > *Gezula*. Corominas-en hipotesian euskal *kresalak (gesalak)* zerikusia luke lat. *aque salis* baten sinkoparekin. Azterkizun geratzen da. IDELEKU (lugar de helechales). Bigarren osagaia erromanismo nabaria da, lat- *locus*-etik *lueco* gaztelaniarra emanez. Lehen osagaiak, dena den, euskarazko *ira / ida* (helecho)-rekin erlazioa. Cfr. LEEE, 135-136. ISLA (reflejo) > *Isli*. Mallegu erromanikoa euskaran lat. *destillare*-retik, (*d*)*istilla*, *islatu*, *islada*, *isla* formulak emanez “destellar, brillar” esanahiaz (eta Iturri beretik *istilla* “gota”, jatorriz, orobat, latinoak. Cfr. LEEE, 210, Corominas, Breve Dic. ET. 211. KUBA (cuna, nicho) > *Kuba*. Lat. *cunametik* euskarara *kua* formula “sehaska-ren” esanahiaz, bokalarteko sudurkariaren erorketaz (baldin “*kuba* formula onartzen ez bada kontsonantizazio sekundarioa legoke). Cfr. LEEE, 96. MEZUDUN (mensajero) > *Mezudi*. Euskal formula lat. *missum*-etik, *i* laburrak > e emaltza izan duelarik, eta txistukarian *s* > *z* trukaketa zaharra gertatu dela. -*Dun* osagarria *edun* aditzaren erlatiboa da. Cfr. L. Michelena, FHV 281. MIRA (asombro, milagro) > *Mira*. Lat. *mirare*-ren bidetik euskaran *mira(garri)*, *mirari*, *mirail* (*miraculum*, kasu honetan tresna bezala) eratorriak. Cfr. LEEE, 37, 53, 270. Mokote (pico pequeño) > *Mogot*. Gorago *moko* fr. *bec*, *beco*, *biko* erromanikoak alpatuta. Cfr. REW, 1013. URTXILLU (ramas llenas de fruta) > *Ourtilan*. Azkuek “sostén de ramas demasiado cargadas de frutas”, lat. *furcillam / furcillum*-en ildokoa, gaztelaniako *horquilla*-tik hurbil. Cfr. LEEE, 69, 79. NATA-BUTHUN > *Natabutun*. Azkuek hiztegian *nata*, *nota*-ren formula sekundarioa, dakar, asimilapen gorankoaz. Jatorrian *nota / notha* “mancha, peca” delakoek Iturri, latineko *notam*-en dute, “mancha” esanahiaz. Liburukian azaltzen diren *naka* (*Naka-ata* “pecado-puerta”?) eta *nara* konstatapen lexikal ez-ziurrak dira. *Naka* bada Azkueregan, baina “burla” esanahiaz. Cfr. EW 5962, FEW 7,

196s. LUKUZE > *Lucus*. Iparraldeko gure toponimian *Lukutze*, lat. *lucus*-etik zuzenean –"bosque" semantikaz eta amaierako eransketaz-. Araban *Luku* tokizena. ONGA (medida de granos) > *Onga*. *Gonga*-ren erredukzioa, eta, agian, lat. *concham*-en ildokoa, neurria adieraziz. SAGRE (¿) (sagrado) > *Sagro*. Bere iturria lat. (con)sacra-re-tik anaptixidun *sagaratu* formula jatorragoa izaki. Cfr. LEEE, 76,203. TALLA (guadaña) > *Taya*. Ikus gorago *Daia*. Dударик gabe, lat. *talliare* arruntaren ildokoa (*dalha*, *dalla* erromanikoak direla), eta *daculum*-etik *dallu*, *dallo* (guadaña). Cfr. L. Michelena, FLV, 6, 194. SEGUR (lugar seguro) > *Seggur*. Sineskaitza egiten da euskal jatorria egoztega *gazt. seguro*-tik hain hurbil dagoen termino bati; bestalibete suertatzen da zerrendako *seko*, *kuba*, *kale*, *kapa*, *albardatu*... eta antzekoekin. Alferrikakoa da horrelakoetan gaztelaniar iturrietatik alde egin nahia. TURMOI (trueno) > *Turmo*. Gure ustean lat.*turbionem*-en ildokoa, kontsonanteen trukaketaz, eta metatesiaz. Cfr. LEEE, 190, 204. UARKA (depósito de aguas, río) > *ouerka*. Lehen osagala euskal *ur* (agua) da, baina bigarrena *arca* erromanikoa, *hots*, *uherka* / *uerka* (cauce de río) delakoetan ematen den bera. ZARATE (lugar de Alava) > *Zarat*. Euskarazko *zara*, *xara*, *txaga* (*Txaradi*, *Txagadi*, *Txarakadi* toponimian) gaztelaniazko *xara* / *jara*-ren ildokoa, bertara arabierako *sacra* / *sará* "matorral, mata", "bosque" delakotik heldua. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 343. Bigarren osagala euskarazko *ate* (portillo, entrada) da, noski, *Garate*, *Mendate*, *Otxate* toponimoetako bera; *Zarautz* toponimoa etimologia beretik, probableki, lehen osagalarri dagokionez. ZELU-AN (en el cielo) > *Zeluan*. Gure *zeru/zelü* S. delakoek lat. *coelum*-era garamatzate; mallebu latino beranta gurean hasierako fonemak –belare zaharraren ordeztasibilazioa pairatu baitu. Cfr. LEEE, 17,49-50. *Zambrana* (pueblo de Alava). *Zenborain*, *Zenproña* (lat. *Sempronía*) kasuetan bezala, antroponimo latino baten ildokoa, hasierako euskal aurreordertsalaz (euskal toponimian antroponimia latinoak duen garrantzia baliotatzeko ikus gure LEEE, 242-265). ZIMA (greña) < *Zima*. Gure *txima* hasierako asibilazioaz lat. *cymam*-etik; formula zaharrak, aldiz, belare zaharra eusten du, *kima* / *kimatu* ondorioak emanaz. Onartezina, bada, *Zima* toponimo bereberrarentzat euskararen zehar erantsiriko etimologia latino hain beranta. Cfr. LEEE, 69. ZARIKA (maleza al borde de un río) < *Zarisa*. Gure *zarika* lat. *salicem* (sau-

ce)-tik, euskal aurredotsalaz eta />r ohiko aldaketaz. Cfr. LEEE, 44, 85, 89.

II) Alderdi fonetikoak.

Hitzen jatorria probatzeko ez da aski etimologikoaren elementuak luzatzea, beharrezkoa da, aldi berean, konstante fonetikoak hurbiletik kontuan izatea edozein temeritatetan ez jausteko –sontsonete hutsen mendean, alegia–. Horregatik euskaraz mallegu latino-erromanikoetan (eta besteetan) hasierako herskarien ozendurak, bokalarteko herskarien gorketak eta ozendurak, muturreko ezpainkarien trukaketak –eta bokalismoaren esparruan jarduera legezkoak (adibidez, o-tik i-ra eta e-tik u-ra jauzia, normalean, ez da posible)– kontuan izatekoak dira. Sinesgarritasun urrikoa iruditzen zaigu tauletako kasu anitz, konstante fonetiko horiek errespetatzen ez direlako. Horien artean hurrengoak (lehenik toponimo bereberrera eta ondoren euskarazkoa ematen dugula): *Artesoon* < *Artzean*, *Aritxaga* < *Ariaga* (hobe **Aritzaga* kasu honetan) *Erasin* < *Érasun*, *Kuerion* < *Karroin*, *Guerguz* < *Guereño*, *Iguidi* < *Igedo* (*Igeldo*), *Ideles* < *Ideleku*, *Gueriun* < *Gerenda*, *Arg* < *Argi*, *Malmusi* > *Melmut*, *Nefusa* > *Nagusi*, *Ourtilan* > *Urtxillu*, *Urdine* > *Urdaniz* (euskaraz *Urdanoz*, *Urdaneta*, *Urdangarin* urdano (urde)-ren ildokoak), *Zegar* > *Zekor* (euskal malleguetan ez da indiferentea bokalarteko ozendura), *Xiluli* > *Xilu* (*Zilo*). Kasu hauetan lege fonetikoak lasaka ageri dira, eta koerlazioak eztabaldagarri gertatzen dira. Bestalde, semantikaren aldetik oztopoak euskal toponimoetan zeregin “quehacer” (*Zerguin*), *zarabe* (?) “materia” (*Zerava*), *Nai-il* “voluntad de los muertos” (sintaktikoki *hil-nahia* behar luke) (*Nai*), *Igida* “movimiento” (*Iguidi*), *Gur* “adorar” (*Guir*) moduko kontzeptu abstraktu eta baloratiboak atzematean.

Toponimoetan fonetika hain lasaki hartzean, edozein hizkuntza urrun edo ez-ezagun (jarri dezagun fino-hungariera, turkiera, eslabiera edo uro-altaiko den esparruko beste mintzaira) batetik antzeko parekaketak aise eraiki daitezke. Euskara bere isolamenduagatik bereberrera, guantxea edo egipzierako idazkien intepretazio-giltzarri bilakatzea esoterismoari gunea eskaintzea daiteke. Hain zuzen, edozein mintzaira arkalko eta urrunekoak antzeko jokoak salatzea uzten du. Guk gerok (Europako mapa hartuta), proba gisa, Turkia, Bulgaria, Hungaria eta Finlandiako toponimo zenbait jaso dugu, zinetan lege

fonetikoak soinukidetasun eroso baten andanan sasi-tokizen euskaroldeen zantzua atzeman dugu. I) *Filander* > *Euskara*-ren arloan: *Heinola* > eusk. **Hein* (tanto) *ola* (cabaña)., *Seinäjoki* > **Sein* (hijo) *joki* (elemento pegador), *Muanio* > *Muino* (colina), *Ahtäri* > *Atari* (portal), *Värtsita* > **Bartza* (Ilandre) *-illa* (muerta). II) *Hungariera* > *Euskara*-ren arloan: *Orosháza* > **Oroz aza* (del todo berza), *Eger* > **Ager* (alto, manifiesto), *Györ* > **Gilbor* (panza, sebo), *Salgotarjan* > **Sal* (vender)-*go(i)tar* (alto) *-jan* (comer). III) *Bulgariera* > *Euskara*-ren arloan: *Musale* > **Musu* (rostro, nahiz mallebu erromanikoa izan) *-ale* (grano), *Veliko* > **Bel(tz)* (negro, oscuro) *-(i)ko* (atzizki diminutibala), *Braka* > **Praka* (nahiz mallebu galikoa izan gurean), *Karnobat* > *Gar / kar* (llama), *-bat* (uno), (*Sredna*) *Gora* > *Gora* (arriba), *Zagora* > *Za(i)* (guardia), *góra* (arriba). IV) *Turkiera* > *Euskara*-ren arloan: *Türbe* > **(I)turbe* (bajo la fuente), *Araxes* > **Araxes* (Nafarroako ibai ezaguna), *Ankara* > **(H)an* (allí) *-gara* (espiga), *Sulusaray* > *Solo* (campo)-*zara* (jaro)-*ai* (cuesta), *Biga* > **Biga* (dos, vaquilla), *Gönen* > **Göien* (el más alto), *Agri* > **Ageri* (manifiesto, alto), *Eceabat* > **Étxe* (casa)-*bat* (uno). Hau guztia, noski, ez da onargarri. Ezta ere turkiera edo fino-hungariera baino hurbilagoa zen Iberierari buruz Larramendik jalgitakoak (Barcelona > *Bart-ze-lo-ona...* modukoak, gaur guztiz arbulaturik daudenak). Larramendiren jarrera temeritatetzat hartzen bada, zergatik ez urrunagoko toponimoen irtenbide zenbait? Euskararen alde errespetu gehiago errebindikatzen dugu (ezen exotiko –eta esoteriko– gertatzen den oro ez da onargarri, baldin mintzaren konstante fonetikoak –eta erro lexikal serioak– gogoan ukaiten ez badira). Euskarak badu egun kontsideragarri den Ikerketa-maila serioa, guztiok ezagutu behar genukeena.

2.c) Inskripzio libiarrak

Segidan, liburuko inskripzio eta epigrafia libiar zenbait aztertuko dugu –beti ere proposamenak euskal lexikoa, sintaxia eta fonetikaren bahetik igarota, autoreen lehia idazki horiek euskararen zehar interpretatzea izan baita–. Beraz, inskripzioen interpretazio-giltza euskaran atzematen duten autoreek, aurreko orrietan bezala proposaturiko euskal lexikoari garrantzi aparta eskainiko diogu. Hain zuzen, Arnáiz eta Alonso Irakasleek aurkezturiko idazkietan zer den zahar hipotetikoa –eta zer ez hain zaharra– atzematuko euskal lexikoan mallegu latino ta erromanikoa denari atentzio berezia emanen diogu.

Hasieran balesten genuenez, euskal lexiko tradizionaleko % 65.a baino gehiago jatorriz latino eta erromanikoa izaki (hau da, euskararen *corpus* lexikal zaharrean dauden terminoetan bi herenak, gutxienez, latinoak, gatzelaniarrak, aragolarrak, gaskoinak, frantsesak... dirla, nekez interpreta daiteke bi mila urte baino gehiago dituen Inskripzio libiar edo hieroglifiko egipziar bat orain mila eta larehun, zortzirehun edo bostehun urtez geroztik, soilik, euskaran txertaturiko hitz baten bitartez. Hor datza auzia. Eurek diote: "La presencia de dromedarios con la inscripciones bereberes rupestres indica que muchas son muy antiguas, ¿miles de años antes de Cristo?" (97 or.). "Resumiendo, la dificultad de datar las inscripciones rupestres saharianas ha inducido a fechas de aparición del alfabeto bereber muy conservadoras (dentro del primer milenio a.C.), pero que podrían llegar en algunos casos hasta el 2000 a.C." (98 or.). Hori horrela bada, zaila deritzogu Inskripzioen Irakurketa euskararen lexikoaz ballaturik, soilik, egiteari. Oztopo anitzekin topatzen da jarrera hori, gure lexikoaren aniztasuna oso nabarra delako.

Hona, bada, J. B. Cabot-ek transliteraturiko libiar Inskripzio zenbait, Arnáiz eta Alonso Irakasleek euskal lexikoaren zehar interpreta-tua. Guk autoreek aportaturiko euskal lexikoa eta gatzelaniar Itzulpena kontuan izanen dugu. Ez gara testu problematiko guztien azterketan lehiatuko, batzuetan soilik.

MARRA-ATAN-NO. Itzulpena: *Más allá-de la puerta-donde*. Zailtasun nabariak Itzulpena onartzeko, ezen *marra* maillegu erromanikoa dugu euskaran, *barra*-tik etorria (L. Michelena, FHV. 269), nahiz autoreek **ara/arrantz* (?) hipotetiko bat atzeman; bestalde, perpausaren azkeneko *no* horrek (*non* ordezt ekarria) sinesgarritasuna kentzen dio perpaus osoari, ezen *non* kontzeptua euskaraz hitzaren gibelean ezarritako inexisten ematen da (baldin eta "*non etxera joan nintzen*" (de donde se sigue que fui a casa...)) gisako esaldi latinizanteetan gertatzen ez bada, eta orduan ere *non* delakoa (inoliz ez *no*) perpausaren lehen posizioan ezarri ohi da).

KANALA-AMA-TAKA. Itzulpena: *Pecador (en) el canal de la madre*. Perpausan, bi hitz, gutxienez, berantak dira, hau da, *kanala*, inolako dudarik gabe, gatz. *canal*-etik, eta **taka*, itxuraz, *nota / notha, nata, / natu* (hirurak Azkuen hiztegian) delakoen iturritik; goran ikusi genuenez, lat. *notam*-ek *notha* "mancha", eman du gurean

"peca". Cfr. REW 5962s. Itzulpenak ez du sinesgarritasunik euskarari atzemaniko bi mallebuak berantak direlako.

NO-SAKA ATA-SU. Itzulpena: *Donde (en la) puerta de fuego del barranco*. Itzulpenean datorrena –euskarazko perpaus legezko batean (nahiz aditzen eta deklinatiboen nexoa kendu) –honelakoa litzateke: *Arroa(ko) su-atean. Sintaktikoki (sakaNean ordez) NO-SAKA proposatzea aldrebeskeria sintaktiko gaitza da, gaztelaniaz *barranco el en moduko zerbait jaigiko bailitzan. Galnera, fonetikoki ez dago justifikatuta hitz-amalerako sudurkariaren erorketa (noN eta SakaN ordez), nahiz kasu berezitan zubererak posizio horretan fonema hori galdu (gizoneki > gizonekin).

NO-MAN. Itzulpena: *Donde por mandato*. Bigarren hitzak gaztelaniako man(dar) delakoaren lldokoa dirudi, lat. *mandatum*-etik euskarari manatu eman baita ND taldearen erredukzioaz; badira, bestalde, kontsonante guztiak gordez, *mandatari* eta *mandatu* bezalakoak. NO (*donde, por donde* esanahiaz) ez da onartzekoa, goran baletsi dugunez, posizio horretan.

ARA-KUSA-AMA. Itzulpena: *(En el ataúd, tierra de la madre)*. Oztopoak bigarren terminoak, *kusa* < *kutxa*-ren lldokoa baita, jatorriz latineko *uticam*-etik *hucha*, huche erromanikoen bidez gurean sartua; *kutxak* k protetika du *arratoin /g-arratoin* malleguak bezala. Cfr. LEEE, 209. Bestalde euskaraz *araN* da, eta ez *ara* soilik.

KA-TAR-ARATZA-AMA. Itzulpena: *Procedente del fuego, yace (en) la madre*. Susmagaitza Itzulpen hain bitxia, ezen, -tar atzizkiaren ordez, -*dun* hobetsiko luke euskarak **kardun* (poseedor de la llama). Aratza "yace" aditzari hasierako fonema falta zaio, hots, *d-* aurrizkia, *deratza* (d-atza). "(En la) madre" kasurako hobe **amarengan* bat, -n ixexiboaren ordez. Perpausaren esanahia nexorik gabeko hitz-piloa suertatzen da

MAKA-ARAN. Itzulpena: *Valle de pecadores*. Ez zaigu konstatzen lat. *notam* (mancha) delakotik *maka* formularik, baldin *naka*-ren (BN. burla) aldakia ez bada. Bada, bestalde, *maka* BN, Sal. abolladura, *makadura* S. contusión.

LARRI-NO. Itzulpena: *Asustado-donde*. Itzulpen onartezina, euskal syntaxia errespetatzen ez delako. Euskaraz *LARRIA-N behar luke, inexistiboaren tokia amaleran emanez; ezta era no(N) formula (goian alperaturiko perpaus latinizantenteetan ezlik, eta orduan perpaus

saren muturrean, alegia, *non, non eta* delakoez hasten direnetan, Leizarraga, Axular, Etxeberri Sarakoā, eta abarretan ohikoa denez).

NO-AGU. Itzulpena: *Donde (es) nuestro*. Perpaua ez da euskarazkoa; antzekoak –bereberretik ez ezik– urruneko edozein mintzalratik atera litezke. Gure sintaxiak **Non gurea (den)* gisako zerbait eskatuko luke **agu* hori (inongo euskalkitan *gurea*-rekin trukagarri ez delarik).

NULA-ITA-BE-TITXA-MU. Itzulpena: *Como abajo segado, dichoso con una oración*. Nahiz posible izan *nola* batekin (*como...*) hasiriko perpaua erromanizanterik (baina interpretazio horrek oztopoak litzuzke libiar inskripzio zahar bat irakurtzeko), arazo lexikalak ditugu, ezen *titxa* “dicha” mallegu erromaniko nabaria da, eta *mu* hitz onomatopelikoak dugu –gaztelaniaz ere “ni mú” esan ohi da–. Bi elementu lexikal berant horiekin edozein nahaste-borraste sor daiteke. Ez da aski euskal hiztegi zahar bat hartzea itzulpenak berehala garatzeko. Euskal sintaxiaren giltzak ere (nexoaren aldetik) kontuan ukan behar dira, lexiko latino-erromanikoaren auziaz gain.

ZAN-BE-GIZA. Itzulpena: *Hombre difunto abajo*. Oztopo fonetiko eta sintaktikoak bertan. ZAN (que era, difunto) euskaraz aditzaren gibelean kokatzen da (*gure aita ZANA /Zena = el difunto padre* (inolaz ez ZAN aita **padre difunto el*). Fonetikaren aldetik *giza* formula adjektibo bezala (eta sustantiboaren aitzinean) erabili ohi da. Beraz, *giza eskubideak*, ez **eskubideak giza*.

IKUS-ZAN-BE. Itzulpena: *Mira al difunto abajo*. Hemen proposatua euskaratik baletor, gurean *IKUS (ezazu) beeAN ZAN(A) antzeko zerbait emanen luke. Euskarak ez du onartzen ZAN moduko aditzik kasu mugatuan ez bada, bertan erlatiboa ematen delako (*zana = el que es*). Bestela perpauak ez du nexorik edo loturarik –eta are gutxiago itzulpen egokirik–.

LEKU-SU-AMA-IKE-BE-TAKA-AMA. Itzulpena: *Lugar de fuego de la madre, pecador abajo (en) la collina de la madre*. Perpauan hitz berantak *leku* (lot. *locum*, gaztelania zaharrean *lueco*), *taka*, agian, *nata / nota* “mancha” erromanikoaren (lat. *notam*) bidekoa. Cfr. L.Michelena, Emerita 24, 169. *Taka* gurera *taca* okzitaniarraren zehar, fr. *tache*, it. *tacca* “falta, defecto”). Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 553. Kristoren aurretiko libiar inskripzio bat interpretatzeko, zazpi hitzetatik, bi mallegu erromanikoz ballatzea ez da zuzena.

AKA-BE-KUSI-NABA. Itzulpena: *Mira al difunto abajo en la llanura*. Oztopo etimologikoak *aka* eta *naba* kasuan. *Aka* (*aka(batu) jakaatu* = matar, morir animales) gazt. *aca(bar)* aditzaren sinkopa baino ez da, eta, beraz, aski beranta gure lexikoan. *Naba*, berriz, euskara gainditzen duen mailegua da, penintsulako toponimian aski hedatua (*Navarrendonda, Navaleno, Navas de Tolosa*, eta abar). Corominasek "palabra arraigada en todo el territorio español de lengua castellana y vasca, de origen prerromano" dio, agian, *naus* Indoeuropear batetik. Dena den, ez da euskararen baitakoa. Bestalde, *ikus*i aditzaren erroa ez da kusi *-(i)kus* baino (*dakust, dakusgu, erakusten* delakoetan azaltzen dena)–.

BI-BAKE-ATA-MAMA-BE-SU UN. Itzulpena: *Doble paz en la puerta, la madrecita abajo y el fuego profundo*. Oztopo lexikala azkeneko un horretan. *Un*-ek ez du "profundo" adierazten, "espacio" baino **un(e)*-tik. (*H*)*un* aldiz, "tuétano, meollo" balitz, berriro, mailegua *hun/muin, fuin* > lat. *funem*-etik. Cfr. LEEE, 106, 113, 141. Bigarren oztopoa *bake* mailegu latinoan (lat. *pacem*-etik gurera belareak latinitas arkaiko baten fonetika islatuz (gaztelaniako *paz* delakoaren ondoan). Cfr. LEEE, 93, 98, 113.

MAN-KARAN -BE-ATA. Itzulpena: *Autoridad-de las llamas-abajo-puerta*. Harrigarria *autoridad* bezalako kontzeptu abstraktu bat testuan kausitsea. Zer esan nahi du "*autoridad de las llamas*" horrek? Bigarren oztopoa *man-* delakoan, *man(dar)* erromanikoa baino ez baita (eta, beraz, oso beranta libiar inskripzio bat interpretatu nahi izateko). Fonetikoki *de las llamas* genitibala euskaraz < **garren / karren* litzateke, ez *karan* soilik (dardarkari bikoltzik gabe), alegia.

ATA-DALU-AKA-NATU-SU-UR-IU-ATAN-SU. Itzulpena: *Puerta-cordado-difunto-pecador-fuego-aguas-podrido-en la puerta-fuego*. Itzulpen errepikakor, eztabaldatsu, susmagarria... Libiar testuak, agian, koptoan, gotikoan edo filanderan aurki lezake, euskararen bezainbat itzulpena. Perpausean hiru hitz berantak dira, hau da, latin-erromanikoak. *Dalu* (lat. *daculum*-etik, atzetonikaren erorketaz eta *guadaña* esanahiaz). Cfr. L. Michelena, FLV 6, 194. *Aka* (difunto), golan esan dugunez, *akabatu*-ren errokoa, gazt. *acabar*-etik gurera "matar" eta "morir animales" esanguraz. *Natu* euskarara lat. *notam*-etik ("mancha, peca", *notam* latinoaren metatesiaz). Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 416. Azkuek *natu* "tacha, mancha", *nato* eta *nata / natudun* aldaki metatesidunak.

ARATZA-IL-ATA-DALU-UKA-DAMU-ATA-BIZIKA-NAKA-AMA. Itzulpena: *Yace-difunto-puerta-muerte-rechaza-arrepentidos-puerta-germen-pecados-madre*. Itzulpen sineskaitza, oztopo morfologikoez gain (aratza *deratza / datza* ordez, bizika *bizitza(?)* ordez...) hiru maillebu latino-erromaniko dituena. *Dalu* (lat. *daculum*), itzultzaileek "muerte" esanguraz. *Damu* (lat. *damnum*-etik, gaztelaniaz "daño", balna gu-rean "arrepentimiento" (Cfr. Luis Michelena, FHV, 348). *Naka*, agian, *nata* "mancha"-ren ildokoa, baldin "burla" ez bada. Perpaua euskarara -nolabaiteko nexoz- Itzuliko bagenu, hurrengo emanen luke (beti ere modu hipotetikoan): "*Baderatza* (bizi) *zena illaren* (heriotzaren) *atean*, *ukatzen* du *damuturik bekatuen* (noten =de las manchas o pecados) *atea eta azia* (bizia)". Hau dena, noski, hipotetikoak litzateke, euskararen lege sintaktiko-morfokogikoak, nolabait, ziurtatuko lukeena.

DALU-AKA-ATU-MAN-SU-ATA-BE-GUNE-NATA-BARA-ATA-BARA-TITA. Itzulpena: *Cortado-difunto-puerta-autoridad-fuego-puerta-aba-jo-lugar-p ecadores-detenidos-puerta-detenidos-pecador*. Gisa honetako esaldia orain bi mila eta gehiagoko euskaldun batek nekez ulertuko luke (eta ligoitsu libiar batek...). Perpauan sei maillebu latino-erromaniko daude, itzulpena euskararen zehar biziki sinesgaltz bihurtzen dutela. Lehenik, "puerta" delakoan *ata* (*atea*) ematea -eta bestean *atu-* ez da zilegi (*a*-tik *u*-rako bidea ez balta egokia). Hona perpauseko mailleguen ibilbidea: 1) *Dalu* (lat. *da(cu)lum*, guadaña, itzulpenean "cortado" esanahiaz. 2) *Aka* (gazt. *aca*(bado), muerto, difunto. 3) *Man* (gazt. *man*(dar), lat. *man(da)tum*) *manu*, testuan "autoridad" esanguraz. 4) *Nata* (lat. notam "mancha", nahiz liburukian azepzio zabalagoan "pecado, pecador" bezala jalgi. 5) *Bara* lat. *parare*-tik "detener, parar" ohiko "probeer" eta "colocar" delakoez gain; euskal formulak hasierako ezpainkariaren ozendura (pul-satum > *bultzatu*, peccatum > *bekatu*). 6) *Bara* errepikatzen da alpaturiko Iturri latinotik. Cfr. LEEE, 99, Corominas Breve Dic.Et. 440. Dударик gabe, Kristoren aurretiko libiar testuaren ia erdia maillebu latino-erromanikoz horniturikoa da, eta maillebu itzulpena ballogabea bihurtzen dute.

3.- Guantxea eta euskara erlazioan

Liburukiaren zazpi eta zortzigarren atalean guantxearen Ingu-

rukoak biltzen dira. Bertan antropologia eta genetikari dagokion asko ez da gure kritikaren gai. Gu ez gara, bada, sartzen genetikaren esparruan, liburuaren autoreen lanak arlo horretan kontsideratzekoak izaki. Esana dugunez, gure kritika lexikora (eta elementu latino eta erromanikoen esparrura) mugatzen da, euskararen beste aspektu sintaktiko eta morfologikoak ere, kasuan kasu, kontuan izanez.

Quantxearen erlazioak euskararekiko (eta ingurune hedatuagoa batez, -kaldear, sumeriar, Alpes aldeko hizkuntza eta bestelako batzuen hedakuntza eskerga kontsideratuz- F. Krutwig-en *Garalda* liburukian eskaini zitzaigun. Krutwig ere gune hedatuagoa zuen aintzin hizkuntza baten *couche* batez mintzatu zen (nahiz hizkuntza-familien esparruak lasaki gainditu), eta *couche* haren substraktuhondarrak egungo euskararen eta golan alpaturikoetan atzemanen bide zituen. F. Krutwig-ek, ordea, ez zion nexorik aitortzen euskara-bereberraren ahidetasunari; bai, ordea, quantxeari, nahiz bi hizkuntzen geografia hain urrun kokatuta egon. Beste adardurak Alpetara, sumeriar hizkuntza eta zeltikoetara hedatu zituen. Gogoan dugu bere liburuiko quantxe lexikoaren adierazpen zenbait. Bertako emaitzak ez dira askotan gure fonetikara egokitzen, eta ez bide ditu ezagun erromanisten azterketa guztiak euskal lexikoaren esparruan. Bere zerrendan ahalmen (*-men* atzizkia erromanikoa), *nekatu*, *buluzik* (lat. *vilum* = vello), *roma* (*h*)orma-ren metatesia lat. formametik ikus LEEE, 107, 113-114), *zelo* (*zelu* -lat. *coelum*-, *eremu* (errom. *yermo*) modukoak latino-erromanikoak dira. Dena den, F. Krutwigengan fonetikaren arloko desegokitzapenak arazo lexikalak baino gaitzagoak dira (ikus bere liburuiko 149-169 orriak).

Arnáiz eta Alonso Irakasleen liburukian hizkuntzarekin zerikusia duen alde antropologiko eta erlijios sugerente asko dago; hori onargarri daiteke kondairarekin lotua agertzen delako. Arazoa, bada, hizkuntzaren arloan gertatzen da, berriro, harri eta epigrafietako testuak euskararen bahetik Intepretatu nahiak kontu asko eskatzen baitu. Gure mallegu latino-erromaniko ugarien oztopoa aintzinako testu quantxeentzat ere eztabaidagarri bihurtzen da. Berantasun lexikalak sinesgaltz bihurtzen du itzulpen zenbait (eta, orobat, euskal substraktuko termino anitzek fonetikaren legeak hurbiletik hartzen ez baditu).

I) Aurretikoak

Guantxeen kondaira atzematean autoreek ustezko euskal erroez solasa Kanariar Irletakoa hainbat tokizen interpretatzean. Berriro arazo fonetikoak, etimologikoez gain. Ikus ditzagun kasu batzuk. GUADARFIA "nuestro cuerno doble" euskarazko *gure *adar bia* delatik. Sontsonete hutsa, gure aburuan. GUIZE "hombre" euskarazko *giza-tik, nahiz *gizon*-en formula adjektibala soilik izan. GU-ANA-ARA-ATA "nuestra hermandad tierra de pecadores" euskarazko *gu(re) *ana(i) ara(n)-at(e)a* batetik, antza. Hitzak ez dira behar bezala osatzen, *anal(a)* baita euskaraz -ez *ana*, soilik-, eta *aran* -ez *ara*, soilik-. Onartezina DORAMAS "que viene madre oscuridad". Oztopo morfologiko nabariak hasierako *dor* fantasmagoriko horretan, *da-tor*-en esanahia egotziz itzultzaileak; *etorri* aditza erroan (*e*)*tor* da (Inola ere ez *dor* ozena). -As, antza *arrats* ("anohecer") delakoaren sinkopa, Azkuek berak dakarrenez. Horretan ez da arazorik, baina bai DORAMAS hitz-piloaren derrigorrezko interpretazioan. TENEGUA "todos los días" *dena *eguna* batetik; fonetikoki *dena* "todo" delakoak ez du hozkariaren gorketarik jasaten posizio horretan. GALDAR > *caldera*; mallebu erromanikoa, tradizioko *galdeira* (lat. *caldarium* / **caldariam*) ahantzi gabe. MANINIDRA "poder venido a mí". Lehen osagalrako *man* (*man(dar)* erromaniko batetik abiatzen da. Itzulpena **man-eni-dira* batetik letorke sontsonetismo hutsaren ildoan. TIRAJANA (euskarazko "dira" ordez *dir-aka-a na* batetik, "brilla-difunto-hermanda" esanahiaz). Onartezina pozisio horretan *tira*; erdiko *aka* euskarara gazt. *aca(bar)*-etik, esana dugunez. ATABARA "puerta-venido a parar" delakoan *bara*- mallegu latinoa, *parare/paratum*- "pro-veer", "detener" delakoaren erroa, hasierako herskari ozenaz. Cfr. LEEE, 99. AZUKUABE "pena-cuna-abajo". Azu "izu" ote da? *Kua* lat. *cunam*-etik zuzenki, bokalarteko sudurkariaren ohiko erorketaz. *Kuba* AN, Arakil) eta *kuma* AN, G, B) formulak ere ezagunak dira gu-rean. ETCHEDÉY "casa-voz". *Dei* "voz" bezala, jatorriz lat. *dictum*-en formula erromanikoa fr. *dit*, gal. *deito* gure *deitu*-ren emaitz hurbilak izaki. Cfr. L. Michelena, FLV 6, 190. AGUERE toponimoa "panorama" eusk. *ager* / *agerre* batetik; oztopo semantikorik ez toponimo guantxeak "panorama alto" gisako zerbait adieraziko balu. Euskal formulak dardarkari bortitza du.

II) Toponimo guantxeak

Tauletan ematen zaizkigun toponimoetan (204-206) barreliaketa

anitz dago, eta sintaxia, morfologia, fonetika, eta, bereziki, lexikoa-
ren alde etimologikoak ez dira behar bezala kontsideratzen kasu
askotan. ABA (hendidura) > quantzez *aba*. Euskarazko *a(h)oa /aoa /
abua/ agoa* "boca" (kontsonantizazioz) *aba*-ra sinkopatzeari gehiegiz-
koa deritzogu. ABA-AKA-ANA (hendidura-difunto-hermandad) >
Abeana. Kontzesio fonetiko gehiegi *aba* eta *ana* kasuetan (**aboa* eta
anal(a) orde); erdiko *aka* "difunto" arbulagarria da, gazt. *aca(bar)*
"matar", "morir los animales" delakotik hartua baita. ETXE-MAN
(casa-autoridad) > *Achaman*. Sontsonete hutsa. Bigarren osagala
erromanikoa gurean, hots, lat. *mandare*, gazt. *man(dar)*-etik. Gaine-
ra, toponimo batean "autoridad" moduko kontzeptu abstraktua sar-
tzea bitxia gertatzen da -nahiz guztiz ezestekoa ez izan-. AGUAI-UKO
(aguaje-rechaza) > *Agua-h-uco*. Ausardia behar du *agual* euskal
errotkotzat hartzeko (euskaraz *ur / uh/ u* baita, eta *agual* erromanikoa
-gatzelaniako *aguaje*-ren iturrikoa da). Bidegabekeria bera AGUAI-TE
eta AGUAI-ARA (aguaje-tierra) toponimoen kasuetan. ARA-KARA
(tierra-fuego) > *Aracara*. Elementu horiekin esaldia "hacia la modali-
dad" (?) modura interpretagarri litzateke, *ara* ez baita "tierra" (valle)
"hacia allí" baino, eta "kara" modalitatea eta kolorea adierazten duen
atzizki erromanikoa (gorrara "rojizo", *zurikara* "blanquecino" "verduz-
co" berdekara, **garra/karra* "llama" hipotetikoaren orde). DA- -TARTA-
KO (está-temblando) > *Datartako*. Problematikoa toponimo bat
aditzaren bidez interpretatzea; bestalde, aditzak gurean bigarren po-
sizioa egon behar luke (**dardarka da(go)*, golko *Da tartako* hori Intul-
zio trakeztat baino hartzekoa ez dela. IKOROS (donde se hace
madeja) > *Ikoru*. Itzulpen hain bitxia; agian, *goru* (ruca)-ren ildokoa
gurea lat. *colum*-etik datorrela, ohiko *l>r* aldaketaz. Cfr. L. Michele-
na, FHV, 51,312). Beste elementuak azalpiderik gabe geratzen dira.
Arbulagarri, ordea, ATA-AMA-ATA-ABA (puerta de la madre, puerta
de los sacerdotes) > *Tamadaba*. Sineskaitza semantika hain konple-
xua duen toponimo bat ematea, nahiz posible izan. Dena den,
Inskripzio zahar batean *aba* "sacerdote" terminoak ez garamatza
urrun, gurean *aba* lat. *abba(tem)*-en ildokoa baita, *apaiz abbax*
nominatibala den bezala. Cfr. FHV, 291s.

III) Bestelako izenak

Liburukian, erlijioarekin zerikusia duen hitz -eta hitz-andana-
zenbait eskaintzen zaigu, autoreen ustean euskararen esparrutik in-

terpretagarri dena. Zoritxarrez, nahasi-mahasi fonetiko, sintaktiko eta arbitraritate lexikal asko bertan. Lehendiko *Aka* (*aca*(*bar*) "difunto", *Bara* (lat.*para*(*re*) "detener", *Nata* "pecado" (lat. *notam*, baina meta-tesiaz gurean) mailleguek bere hartan jarraltzen dute. Egia da autoreek onartzen dutela, batzuetan, bereberrean latinatik ukan duen arrastoa, baina, gehienbat, etimologia latino-erromanikoekiko uzkur dira. Garbiro diote: "Por eso, para nosotros no es válida la afirmación de que todos los términos vascos que se parezcan al latín son neologismos, cuando éste último los pudo tomar de las lenguas antiguas usko-mediterráneas" (210). Baleztapen hori ez dugu askitzat hartzen, baldin kasu bakoitzean proba hurbilak eskaintzen ez badira.

Tauletatik (211-213 or.) adibide zenbait: ABER-KABU-EIA (ganado-mercado-los establos) > quantxe esparruko *Aberbekueye*. Arazo fonetikoak, *tegia/teia* (establo) ordez, *eia* soilik proposatzean. Lexikalki *abere* (ganado) lat. *habere*-tik erromanista ia guztien oneritzian. Cfr. L. Michelena, FHV, 226, LEEE, 45, 326. ATA-ZERU-URA (puertacielo-las aguas) > *Adzerura*. *Zeru* lat. *coelum*-etik, liturgiako latina berantetik gurean sartua. Latinismoak esaldiaren antzinatasuna deuseztatzen du. Cfr. L. Michelena, 17, 49, 69, 70. AIKA-H-EME (quejashembra) > *Aikaheme*. *Eme* (hembra) delakoak lat. *femminam*-era garamatza, fr. *femme*, gask. *hemme*, naf. *hemma*-ren ildoan onartuz. Cfr. LEEE, 107. ATA-ARA-GONA (puerta-tierra- mujeres, hobe "falda") > *Atargona*. *Gona* "falda" Tovar-en ustean maillegu zeltiarra, mintzaira erromanikoetara sartua –eta haletatik euskarara iritsia–. Mitxelena ere mallebutasunaren aldekoa. Cfr. L. Michelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 142. AZU-KUA-BE (peña-cuna (comienzo)-abajo) > *Azukuabe*. *Kua*, lat. *cunam*-etik, bokalarteko sudurkariaren erortzetaz, *sehaska* (cuna) zaharragoa delarik gurean. **Azu* nolitzik da "peña" euskaraz? Agian, **Aitz-zu* toponimo batetik? Cfr. LEEE, 96. BENDE-EXTA (dominio-sin) > *Bendieta*. Itxuraz, *bende* "dominio" *mende*-ren aldaki bezala, hitza gurera lat. *mentem* "arbitrio", "dominio" delakotik. Morfologikoki, aditz izen berezi baten oinarrian kausitzea (erlatibo-kasuan ez bada) problematikoa da, ezen **exta* bitxi hori **ez da* (no es) batetik ekarri bide dute autoreek, nahiz fonetikoki onartezina izan. BENTA-KAI-ETXE (venta-ribera-casa). Izenaren bi lehen osagaiak berantak dira euskaraz, hots, gazt. *venta* eta *qual* "muelle" (de puerto) zelta-erromanikoa, gurera gaskoinaren zehar

sartua. Cfr. L Michelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 143., LEEE, 173. GAREA-KUA (granero-cuna (base) > *Gareakua*. *Kua* lat. *cunam*-etik, esana dugunez; *garea* "garala" (hórreo), gure substraktuko hitza (baldin eta hemen *garaun*-en ildoa -lat. *granum*-etik datorrena- kontsideragarri ez bada. Fonetikoki hobe *garai*-tik abiatzea. AL-GORAN (poderoso-en lo alto) > *Alkoran*. Proposamenak oztopo morfologiko asko, ezen ez da aski "poderoso" adierazteko *al/ a(h)al* batetik abiatzea; esperatzekoa litzateke **a(h)altsu* bat, -*tsu* ugaritasunezko atzizki adjektibatzaileak hori leialkiago itzulliko balluke. Beraz, inskripzioaren euskal irakurketan ez dago halako kointzidentzia fonetiko nolabaitekoa baino. H-URA-ANA (el agua-hermandad) > *Huraan*. Berriro, bitxia "el agua-hermandad" bezalako interpretapen abstraktiboa hitz-plaketa arrunt batean atzematea. ANA kasuan, noizbehin, *anai / anae* (hermano) formula on litzateke, baina *ano* (*ana*- konposakeran) "alimento", "porción" (lat.*annonam*) malleguarekin nahasgarri da. Larramendik hiztegi hirukoitz famatuan (*Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin*, 1745 urtea) gazt. *huracán* delakoari euskarazko *urak-an* (aguas all) iturria egozten dio -txantxabidez uste dugu- (bestelako mendigo < *mendiko*, < alabanza < *alaba-antza* (lo que se parece a la hija es digno de loa), Bartzelona < *bart-ze lo-ona* (qué bien dormimos anoche), eskoba < *eskubea* (bajo la mano) bezalako etimologismo abstruoen ildotik). Noski, Licenciado Pozas, Larramendi, Astarloaren etimologia asko (azken honenak morfemetako soinuen ideogrametan oinarritua) gaur erabat arbulatua dago.

IV) Inskripzio quantxeen interpretapena euskararen zehar.

Liburukian (216-242) J.B. Chabot-ek aportaturiko inskripzioen itzulpena -euskara bitarteko dela- eskaintzen zaigu. Lehenago zehaztapen fonetiko zenbait ematen da, T eta D, eta G eta K, B eta P fonemen ballokidetasuna azalduz, euskarak ere fonema batzuen ostean (frikari eta afrikarien, eta sinkopazko beste posiziotan) ohitura fonetiko antzekoak dituela. Bokaleen hutsuneetan (libiar inskripzioetan bezala) autoreek erabakietakoa bere hartan uzten dugu, nahiz hor irtenbide askoren zalantza nabarmena izan.

Antzinatasunari dagokionez, ondorengo inskripzioen data, berriro, Kristoren aurretikoa da, gehienbat, eta hortik halek mallebu latino-erromanikoen bidez interpretatzeko oztopo larria. Bestalde, tes-

tueetatik ateratako itzulpenek, maiz, ez bide dituzte kontuan izan euskararen morfologia, sintaxia eta fonetikaren konstanteak.

LU-ZAN. Itzulpena: *Tierra-difunto*. *Lur* (tierra) delakoak ez du galtzen, normalean, dardarkaria txistukaria ez den bestelako kontsonante aurrean ez bada (*lumami*, *lubera*, *luzuri* kasuetan bezala). *Zan* (el que era) "difunto" (*aita zana* = el difunto padre) kasu mugatuan eman ohi da, erlatiboko kasua dagoelako aurretikoarekin (antedente) nexoa eginez.

KAI-DAMU-AMA-TITA-TASE-XIXI. Itzulpena: *Cementerio-arrepentido-madre-pecador-yace-fuego*. Testuan problematikoak *kai* eta *damu*, mallegu latino erromanikoak izaki; *kai* zeltiko-erromanikoa gurean, gask. eta fr. *quai* kasuetan ematen dela; *damu* lat. *damnum*-en ildokoa, gaztelaniaz "daño" esanahiaz. Cfr. LEEE, 173, 93. *Kai*, bada, "cementerio" bezala itzultzeari lizentzia nasala deritzogu. Fonetikaren aldetik, orobat, *tase*, *datza* "yace" ordez, proposatzea ausarkeria da.

NO-JR-SU-AKA. Itzulpena: *Donde-aguas-fuego-difunto*. Lehen posizioan (eta inskripzio zahar batean hain sinesgarri ez den sintaxi latinizantea onartuz), noN "donde- delakoak sudurkaria galdu du. *Aka* baino gaztelaniako *aca(bar)*-ren sinkopa euskaran. Baldin **Donde (están) las aguas y el fuego del difunto* euskarara hipotetikoki itzuliko bagenu **Zenaren urak eta sua daudeN (tokian)*" antzeko zerbait jalgiko genuke.

BARA-ATA-USKA. Itzulpena: *Venido a parar-puerta-creyente*. *Bara* mallegu latino *parare*-ren ildotik, "detener" esanahiaz; *baratu* "probeer", "colocar" eta "detener" semantikaz lat. *paratum* orobat, hasierako orobat herskari ozenaz. Cfr. Corominas, Breve Dic. Et. 440. "Creyente" itzultzeko **uska* proposatzeari ausarkeria fonetiko deritzogu, hor **usteka* (creyendo) esperatzekoa baitzen.

BAN-MAN. Itzulpena: *Cada una-autoridad*. Itzulpena ezer gutxi adierazten duen entelekia da, ezen, batetik *man* delakoak lat. *man* (*datum*) (*manu* euskaraz), gazt. *man(dar)*-en bide beranta egin du euskaran, eta, bestetik, muturreko *ban* hori ez da onestekoa, *bana/ bana(ka)* batera bildu behar baita.

ZAN-AMA-ZALA-SU-UR. Itzulpena: *Difunto-madre-oración-fuego-aguas*. Sineskaitza nexu morfologiko hain urria duen esaldia. Inskripzioan N M Z L S R kontsonatismoa sollik atzematen delarik, zergatik

erabaki euskal testutik harturiko bokallismoa? Agian, **Zan amak azal za(h)arra* (du) (*la difunta madre (tenía) piel vieja*) Itzulpena ere kontsideratzekoa litzateke (nahiz *ama zanak* delako **zan amak* hori onartezin bilakatu). Ez dugu adarra jo nahi, baina proposaturiko Itzulpenak korapilo gehiegi du.

SU-UR-UN-AKA. Itzulpena: *Fuego aguas-profundo-fallecido*. Lehen oztopoa *aka* delakoan, gazt. *aca(bar)* (eusk. *akabatu / aka(a)tu / akatu* "matar", "morir un animal" baino ez dela. Bigarren oztopoa *un* osagaiari, "profundo" esanahia egozteagatik, baldin *(g)une-tik ez badator; aldiz, *(mu(in) / (h)un* (entraña, tuétano) delakoan, berriro, lat. *funem* mallegua. Cfr. Schuchardt, *Bask. Und Rom.* 52, Meyer-Lübke *REW* 3589, Rohlf's *RIEV* 4,335.

NO-AMA-BI. Itzulpena: *Donde-madre-doble*. **Donde (están) los doce* ere Interpretagarri, agian, **Non hamabiak* batetik. Liburuan proposaturiko Itzulpena onartzeko egokiago **Ama biak (daude)N* hipotetikotik abiatzea, perpausaren morfo-sintaxia errespetatzekotan. Inexiboa (-n) aditzaren amaieran kokatzen da, ez muturrean.

UR-KUSA-AMA-UR-KUSA. Itzulpena: *Ataúd (en) las aguas de la madre, (en) las aguas de la madre ataúd. Kusa*, "kutxa" mallegu erromanikoa, ulertezina orain bi mila urte baino gehiago lituzkeen epigrafia batean, bere jatorria lat. *huticam* izan daitekela, hasierako kontsonantean *k*-ra garatu delarik. Cfr. LEEE, 209. "Ataúd" adierazteko hobe *hil-kutxa* (nahiz *kutxa* onargarri izan; ez hainbeste, ordea **kusa*).

Esan beharrik ez dago atalean beste esaldi eztabaldatsu anitz geratzen dela, morfologikoatik ez ezik, euskararen etimologismo berantaren (latino-erromanikoaren) aldetik nahiko susmagarri dena.

4.- Egiptoar papiroen irakurketa (euskararen bidez)

Liburukiak, hirugarren aportazio bezala, egiptoar kulturaren baitan garaturiko hieroglifikoaren Interpretazioak aurkezten dizkigu, bereber eta guantxeen Inskripzioetan bezala, euskararen bitartekotza bilatuz. Berriro, *couche* oso zabaleko mintzairaren barnean kokatzen zaigu euskara -hizkuntza aurre-Indoeuropar bezala-, idazki ez-ezagun eta esoterikoaren Itzulpengintzan giltzarrizko eginkizuna egotziz. Lehia meritagarria litzateke emaitza ziurretara allegatuko ballitz. Orain-

goan, eginbeharrak oztopo handiagoak ditu, idazkera hizkien ordeko hieroglifiko hutsez osatua baita.

Guk, bereziki, euskal lexikoarekin zerikusia duten alderdiak ukituko ditugu. Hieroglifikoen aintzintasuna Kristo aurretiko 3000 urtetara hedatzen da, batzuetan, eta bestetan Kristo aurretiko VIII. mendetik eta IV.ra, beste epetakoak ere baudaudela. Nabarmen geratzen da, euskararen *corpus* lexikalean atzematen diren mailegu latino-erromanikoen bidez, nekez egin daitekeela dokumentu hain antzinakoen intreprenapena.

1) Toponimo eta izen egptoar zenbait.

Testuen euskal bitartekotasunaren arrazola liburukiaren bederatzigarren atalean azaltzen zaigu, beste galen artean, Egiptoko kulturaren sorburuen adierazpena eta kronologia eskaintzen zaigunean. Arnáiz eta Alonso Irakasleek hurrengoa esaten digute: "Y si los dialectos bereberes tenían un fuerte emparentamiento con el euskara, como creemos ha quedado probado en capítulos anteriores, esa relación se mantendría igualmente para el binomio vasco-egipcio... No obstante, el examen de la toponimia y la onomástica del Egipto moderno y clásico pre-árabe sí arrojó un rayo de luz sobre nuestras investigaciones lingüísticas" (277 or.).

Bereberra eta guantxearen kasuan bezala, ahaldetasuna egozten diote gure autoreek euskara eta Egiptoko hizkuntza zaharriari, euskara giltzarri bihurtuz bertako izen eta toponimo anitzen (275-282 or.) irakurketa egiteko. Gu, beste behin, euskararen lexikoan latina eta erromanikoarekin zerikusia duen etimologietan ez ezik, fonetika eta morfo-sintaxian fijatuko gara proposaturiko testuen parekaketak onartzeko. Hona, besteen artean, atal horretako izen zenbaiten irakurketa, euskararen zehar:

ABU-SIN-BELTZ. Itzulpena (euskararen bidez): *La tumba de los creyentes de la oscuridad > Abusinbel*. Oztopo lexikalak *zin* (*sinsesi* = *creer*, *sinesle* = *creyente*) delakoan, hitza lat. *signum*-en ildokoa delako, Löpeltmann eta beste batzuen aburuan; euskal formulak txistukari aurredotsalea garatu du hasieran. Dena den, ez da mallebu ziurra. **Entrada (boca) del juramento oscuro* literalagoa litzazteke, agian, aurkezturiko elementuen lexikalaren bidez.

ANU-BIZI. Itzulpena: *Toda clase de alimento vida > Anubis*.

Beste Itzulpena: *El que hace desfallecer*. Lehen Interpretapena *anoa* "comida para el ganado", "porción", "provisiones" hitzaren bidekoa, termino hori euskarari latinismo hutsa delarik, hots, *annonam*. Hortik *Anoeta* toponimoa. Cfr. L. Michelena, FHV, 210, 305. Beste bidea, "el que hace desfallecer" intepretapena ere, arbulagarri, *ano* AN, Ark "fatiga", "desfallecimiento" *ano* egin, *anotu* ere (*hunatu* iparraldean) mallebu erromanikoa balta, ausaz, *kauma* bidez. Cfr. FEW 2, 583, L. Michelena FHV, 307.

ANA-AKA-AMAN. Itzulpena: *Pecador de la hermandad de difuntos de la madre* > *Tut Ank Amen* (Tutankamon). Arazo lexikalak, beste behin, *aka* (gazt.*aca*(*bar*) delakotik abiatuta) izen hain aintzina-koa interpretatzeko. Morfologikoki oso traketsa "en la madre" dela-koa AMAN bidez Itzultzea, bizidunekin inexiboa -*gan* / *rengan* deklinatiboa balta, nahiz batzuetan *semeetaN*, *gizonetaN* formulak erabili. "Hermano" gurean ez da *ana*, *anal(a)* / *anae* baino, gaztelaniaz *nado* eta *nudo* desberdinak diren bezala. Autoreek 327. orrian "AKA" (vasco) = pasado de "AKATU" = "morir" dela zehazten digute. *Aka-batu* > *akatu* hori gaztelaniaren *aca*(*bar*)-en lldokoa, baitetsia dugu-nez.

II) "Hildakoen liburuaren" Itzulpena.

Liburuko autoreek "Heriotzaren liburu" delakoaren hieroglifiko-koen transliterazioa, Wallis Budge-k eginikoatik, jasotzen dute. Bertako zeinuetan adierazia argitzeko euskara mintzairaz baliatzen dira. Aurreko ataletan bezala, gure hizkuntzako elementu lexikal latino-eromanikoak atzematera mugatuko gara, eta, aldi berean, testuan dauden oztopo fonetiko, morfologiko eta sintaktiko zenbait argitan uztera. Ez gara sartuko, beraz, hieroglifiko-koen Interpretazioan (hori ez delako gure ezagutza), baina bai autoreek Irakurririko zeinuen azterketa lexikalean, euskararen zehar egin nahi delako Interpretapena. Oztopo nagusia, berriro, hieroglifiko hain zaharrak gure lexikoan txertaturiko mallebu latino-erromanikoen bidez Interpretatzen lehiatzea. Ez da aski transliterazioa egitea. Zeinuen Interpretazio lexikalak badu bere gakoa. Testuak 331-376 orrietan. Esaldi batzuetara, soilik, mugatuko gara.

ANAITU-ARA-AU-OEAN-NATA-ERRU-ABU. Itzulpena (euskararen zehar): *Hermanado-tierra-bocas-en el nicho-pecadores-culpables-sepultura*. Itzulpenean (nexoa egiten duten deklinabideak eta aditzen

flexioak, bestetan bezala, gehienbat falta dira), zurruna eta tentsoa, ulergaitasunaren aldetik problematikoa –edo arbitrarioa– da esaldia. Perpausan bi mallebu latino-erromaniko garbi daude. Bata *nata* (lat.-*notam*-etik) “mancha”, “peca”, testuan “pecado” bezala esparru erlijiosoan Itzulia; *nata*-k jatorrizko *nota*-rekiko asimilazio bokaliko goranzkoa jasan du, eta Azkuen hiztegian azaltzen da, besteen artean, *natu* aldakiarekin batera. Cfr. REW 5962, FEW 7, 196s. Bestea *erru* “culpa”, lat. *errarem*-etik (*erro*, *yerro* gaztelaniakoa kontuan izanik). Cfr. LEEE, 156. Sineskaitza egiten da egiptoar hieroglifiko bat euskaran atzematen diren *nata* eta *erru* mallegu beranten bidez Irakurtzea.

ARREN-ATAN-ENEAN-SAR-AEN. Itzulpena: *Oración-en la puerta al punto en-entrada-su*. Morfologikoki onartezina “en-entrada-su” delakoa -*aen* bidez Itzultzea, izenorde pertsonala falta balta (eta arbulagarriago oraindik **sarreran* baten sasi-soluzioa). Bestalde, *arren* (**arena* ordez) mugagabeen ematea (eta -*enean* “al punto” **at(e)an* izenaren ostean kokatzea) bi oztopo morfo-sintaktiko dira. Euskal testu hipotetikoan nexu asko falta da (nahiz onartzekoa izan horrelako testuetan deklinabidea murriztea); zenbait Itzulpen behartua –la zentzurik gabea– bihurtzen da.

ERRE-A-EME-BA-A-NABA-ERRE-TAR. Itzulpena: *Quemado-layl-madre-si-layl-nava-quemado procedente*. Itzulpen ulergaitza, tenkatua. “Quemado procedente” hori zer da? Euskal morfologiaren aldetik ez da ohikoa jatorria adierazten duen -*tar* atzizkia aditz bati (*erre*-ari kasu honetan) lotzea (nahiz -*iar* / *liar* aldakia kasu bakanetan aditzari atxikia azaldu, *egolliar* kasuan bezala). Lexikoaren aldetik mallegu beranta euskaran eme “hembra” lat. *femminam*-etik, fr. *femme*, gask. *hemme*, nafar erromantzean *hemma*. Cfr. LEEE, 107. *Nava* beste esparru zabalago bateko mallebua euskaran, *Navaleno*, *Navacerrada*, *Navas* toponimoetan ematen dena. Corominas-ek “no parece ser de origen vasco” dio. Breve Dic.Ét. 412.

EME-ATA-MARRA-ENE-ZEN-A-NATA-ERRE. Itzulpena: *Hembra-puerta-pecado-en difunto-el pecador-quemado*. W.Budge-ren hieroglifiko euskaratik Interpretatzean, gure autoreak hiru mallebu latino-erromanikoez ballatzen dira, hots, eme “hembra” -errom. *femme* / *hemme*-, *marr*a (Michelena-ren aburuan gazt. *barra*-ren euskal aldakia) (Cfr. FHV, 269) eta *nata* “mancha”, *nota*-ren aldakia, lat. *notam*-etik. Testuan, hala ere, ausarkeria gaitzena *ene-zen* delakoan (“en-difunto”-tzat Itzuliz), inexistentea, gibelean ordez, aditzaren aitzinean –eta

berezita- kokatuz; lizentzia hori, *mendia*ⁿ ordez, gaztelaniaz *(e)n *mendia* espresatzea bezain gaitzesgarri da. Gaztelaniar sintaxiaren arabera "monte el en" modukorik okerra litzatekeen bezala, guztiz ezestekoa *ene zen* hori gurean. Gainera, noiztik da *ene* delakoa -(e)n /-n Inexiboaren ordain?

AMA-ADI-ADI-KAR-EME-SATS-ZEN. Itzulpena: *Madre-comprensión-comprensión-fuego-hembra-restos-difunto*. Lexikoaren aldetik perpausean hiru maileru latino-erromaniko. *Adi* -bi aldiz emana-*aditu* fomulatik dator, dudarik gabe, "entender, comprender" esanahiaz, baina lehenago "oir" semantika zuen, azken hau zelarik jatorrizkoa, gipuzkeraz entzuten denez. Bere iturrian lat. *audium* "lo oído", latineko *au* diptonga zaharra euskaran murrizten dela. Euskararen inguruan diharduten la erromanista guztiek onartzen dute etimologia hori. Cfr. L. Michelena FHV 95, LEEE 50, 326.

UA-AMA-BA-ABI-ANAXE. Itzulpena: *Nicho-madre-si-sepultura-hermano*. Itzulpen hain tenkatua euskal hiztegi batetik -hotz-hotzean-sortua bide da. Fonetikoki, problematikoa *ua* murrizketa hori "aoa / agoa / aboa / abua / aua" (boca) batetik, lehen bokalearen itzalketaz. *Abi* "sepultura" bezala itzultzen da, eta esanahai horrekin formula zuzenena (*h*)*obi*, lat. *foveam* (*hilobi* "sepultura", "hoyo del muerto" litzateke. Baldin *abia* (edo *kabia/afia/apia* aldaketatik) ekarri nahi balitzateke jatorria, orobat, latinean geundeke *caveam* delakoan. Cfr. LEEE 114, 209, L. Michelena FHV 51. Lat. *foveam* kasurako ikus REW 3463, L. Michelena BAP 9, 284, LEEE, 102, 151.

TITA-ERETZ-ERRE-ARETZ-NATA-ERRU. Itzulpena: *Pecador-del lado-quemados-sitio-pecadores-culpables*. Hieroglifikoan bi maileru aski berantiar, hots, *erru* (*yerro* erromanikoa) eta *nata* "mancha", "peca", lat. *notam*-etik datorrena. Itzulpenean, "mancha" ordez, "pecado" (testuetako mintzo sinboliko-erlijioso jarraituz) adierazteko ez legoke arazorik, baina bai Kristoren aurretiko hieroglifiko bat maileru latino baten bitartez gure hizkuntzaren eremuan interpretatzeko. Gainera, -*dor* (pecador) eta -*ble* (culpable) atzizkieen ordain, gure -*tsu* edo -*dun* (*errudun* edo *natadun* -Azkue badakar hiztegiaren azken formula hau- esperatzekoak ziren (nahiz irakurketa osoro sinkopatuan behar-beharrezkoak ez izan).

EBA-ATA-ERRE-METU-ARRU-UA. Itzulpena: *cortados-puerta-quemado-brote-barranco-nicho*. *Metu* "brote", "brote de la vid" delakoak, erromanista askoen ustean lat. *fetum*-en du iturria, hitz-hasle-

ran euskaraz ematen de $f > m$ ezpainkarien trukaketaz (falda > *malda*, furcillam > *murkila*, funem > *muin*). Cfr. LEEE, 106. Perpausako azken *ua* horretan **abua/aua* (*aoa/aboa*)-rekiko erredukzio gehiegizkoa. *Ebagi* "cortar" aditzak eba formula sinkopatua inperatiboan bezala ezagutzen du, ez ordea, normalean.

ERRE-A-AU-BE-ZEN-NO. Itzulpena: *Quemado-layl-boca-abajohembra-difunto-donde*. Nexo eta lotura hain urri duen perpaus honen eskainitakoaz gain alboko beste esanahirik ukan dezake pilaturiko hitz-andanatik. Testuan onartezina **en el difunto* espresatu nahi lukeen *zen-no* hori, euskararen morfo-sintaxia jatorrean **zeneAN* (edo, hobe, **zenarengan* ("en el cual difunto...")) behar baluke; *no(M)* (donde) aditzaren ostean jartzea arbulagarri euskal jitea duen esaldi batean.

ABA-KUA-ADIA-EME-ABU. Itzulpena: *Boca-nicho-el adiós-hembra-boca*. Hemen testuaren itzulpena hiru mallebu latino-erromantikotatik abiatuta gauzatzen da. Beraz, perpausaren %ko 60.a lexikalki beranta izatea kezkarri hieroglifiko batean aurkitu bide diren elementuentzat. *Kua* "cuna" lat. *cu(n)am*-etik, bokalarteko sudurkariaren erorketaz. Cfr. LEEE, 93. *Adia* "el adiós"-tzat itzultzen da testuan. Euskarazko *adio*, katalanerako *adeu* bezala, lat. *deum*-etik, gaztelaniatzko *adiós* erromanikoaren ildokoa, zalantzarik gabe. *Eme* (hembra), berriz, lat. *femminam*-en eratorri erromanikoa, ikusia dugunez. *Aba* < *aboa / aua* (boca) ordezkatzeko, agian, erredukzio gehiegi. Gainera, fonetikoki, esanahi beraz esaldi batean *aba*, bestean *abu*.

TAR-ARREN-AKA-ANA-ZEN-ERRE-A. Itzulpena: *Procedente-oración-muertos-hermandad-difunto-quemado-un*. Itzulpen bitxia. Guk autoreek atzemaniko hitz-andana hipotetikotik –era hertsia goan– hurrengoa proposatuko genuke, entsegu modura: "*Procedente de la súplica aca(ba)ba el alimento* (lat. *anonam*-en ildokoa)-*que era quemado*"; absurdoa, noski, baina golkoa bezain legezkoa, aurkezturiko lexiko-andana beste modura kontsideratuta.

NO-KAR-UDU-XERRI-ENE-AITA. Itzulpena: "*Donde-llamas-dormido-cerdo-como padre*. Temeritatez beteriko itzulpena, emaitza alboz-albo ezarriko euskal hitz-andana hipotetikotik sorturikoa baita, antza. Posible lirateke, agian, antzeko bertsiok kitxua, gotikoa, turkiera edo finera bezalako hizkuntza distantetatik ere (gorago toponimiaren kasuan egin dugunez)

ARRI-NAKA-ERESI-AU-KAR-EZ. Itzulpena: *Sepultura-pecador-canto fúnebre-boca-fuego-no*. Perpausan *eresia*, guretzat, *elegía* / **elexia* "canto fúnebre" erromanikoa dena, *l>r* (coeLum > zeRU, paLa > paRA) aldaketaz, eta *g* belarearen bustiduraz. Cfr. LEEE, 186.

EME-AMA-ADI-UA-AS-BOO-ENE. Itzulpena: *Hembra-madre-adiós-nicho-oscuridad-sueño-en*. Oztopo lexikalak; *eme* (hembra, lat. *femminam*-en ohiko eratorri erromanikoa -*femme*, *hemme*, *hemma*- batetik; *adi* (*adiós* erromanikoa, gorago ikusi dugunez). Morfolgiaren aldetik oraindik gaitzago perpausuan "ene" -izenorde pertsonala- inexistotzat ematea, -*n* /-en /-enean delakoan ordez. Lexikalki, *as* (arrats ordez) eta *boo* (*bobo* -*lolo*- ordez, Azkuek, R-uzt.) haur-hitzez bezala kontuz hartzekoak.

ANA-ERRE-SU-AU-ETXE-SATS. Itzulpena: *Hermandad-quemados-fuego-boca-casa-restos*. Hieroglifikoa esplikatzeko proposaturiko elementu lexikalak ikusita, hurrengo ere posible hipotetikoki: **Este alimento* (lat.*anonam* anoa, "alimento", "provisión") *quemado* (en el) *fuego es basura de la casa*. Ikusten denez, testuaren irakurketa desberdinak eman daiteke, baina guztiz zalantzakoak.

OA-NEUN-EME-ANDA-A-KAKA. Itzulpena: *Lecho-en parte alguna-hembra-ataúd-layl-restos*. Testuan hiru hitzek euskararen substraktu zaharreko esparrua gaingitzen dute. Bat, *kaka* (excremento) euskarakoa baino eremu zabalagokoa, beste hizkuntza anitzetan ezaguna; *eme* "hembra" (*femme*, *hemma*, *hemme* erromanikoen ildokoa, cfr.FEW 4, 449, *anda* gazt. *anda*-tik. Corominasek *andas* XIII mendean lat. *amites*-etik ("varas de las andas"); euskaraz *andabide* (camino del cementerio) eta *andaburu*. Cfr. Breve Dic.Et.51.

ARREN-ENE-ARETZ-A-ABI-ZEN. Itzulpena: *Oración-en sitio-layl-boca-difunto*. Berriro, inexistiboa hipotetikoa (**ene* delakoa) izenaren aitzinean euskal morfo-sintaxiako lege guztien kontra (euskaraz arbulagarri *-*n mendi* (en el monte) gisakoarik gauzatzea). Fonetikoki, bestetako *aba* (*aboa/ahoa/ua* "boca") ordez, hemen *abi* formula -*la* bokalaz; onartezina *ab(o)a*-tik ekarri nahi bada, "boca" bezala itzultzen balta. Bestelakoa litzateke *abi(a)*-tik (nido, lat. *caveam*) abiatzea, "concauidad" semantikaz; kasu honetan, beste behin, pa-pirotako hieroglifiko bat mailleu latino baten bidez irakurtzen da.

BARATU-NEKE-ZERU-DEBETA-EME. Itzulpena: *Venir a parar-infierno-cielo-prohibido-hembra*. Perpaus hau liburu osoan itzulpenik

kezkarriena, ezen esaldiko hitz *guztiak* –hau da, bostak- jatorriz latino-erromanikoak dira, eta, ondorioz euskararen *corpus* lexikalean aski berandu txertatuak (hieroglifiko bateko terminoak beralen bidez irakurri eta interpretatu nahi direla...). Biziki problematikoa gertatzen da egiptoar hieroglifiko bat %100.a mailleuz osaturik dagoen hitz-andanaz irakurri nahi izatea. Hitz horien jatorria hurrengoetan zehazten da: *Baratu* lat. *parare* / *paratum*-tik “proveer” –eta gero “detener”– semantikaz. *Meke* lat. *necem* “fatigado”, “anegado” (Ilburukian, antza, zentzu sinbolikoz “infierno”-tzat hartua). Cfr. LEEE, 68,71. *Zeru* lat. *coelum*-etik, haserako asibilazio berantaz. Cfr. L. Michelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 104. *Debeta* (*debetatu*, *debeku*) lat. *divietare*-ren eratorri erromaniko batetik, gazt. *deviedo* (prohibido) edo ital. *devietare* kontuan hartzekoak izaki. Cfr. L. Michelena, FLV 6, 201. *Eme* “hembra” lat. *femminam* eta *femme*, *hemme*, *hemma* erromanikoen hurbila. Ikusten denez, euskararen zehar hemen eginiko itzulpena intuizio linguistikoa da. Ezin da gidatu bat fonemen ahaldetasun foniko gutxi-gorabeherako batez. Konparaketa bat egiteko, absurdoa litzateke, gure aldetik, SE ME ALABA SIN CESAR gisako perpaus gaztelaniarra euskarazko * SEME-ALABAK ZIN EZAR (* “Los hijos Impusieron el Juramento”) modura interpretatu nahia –edo eta, alderantziz, *ETX(e)-AR-ME-KAR-(B)ON moduko euskal hitz-mordoa gaztelaniazko ECHARME CARBON hipotetikoaren iturritik hartzea–. Guk jarria, noski, ez da sinesgarri, asmakizun huts da, eta ez dugu horrelako ezer inori seriozki proposatzeko asmorik. Bada hemen zer pentsa, zer barruratu, tamalez. Ez, euskara ez da edozer gauza zahar eta misterios esplikatu dezakeen hizkuntza aurreindoeupar esoterikoa.

Beste kasu eztabaldatsu zenbait: ATA-ARE-BE-ANIMA-ENE-NATA-ERRE. Testu honetan *anima* eta *nata*, garbiro, maillebu latinoak, lat.*animan* eta *notam* erro ezagunetatik. Cfr. LEEE 45,115, REW 5962s, L. Michelena “De etimología vasca” *Emerita* 18, 468. DUA-EME-AMA-ZEN-SEME-A-ARE-BE. Testuan *dua*, *eme* –eta, agian, *are*–, jatorri latino-erromanikoetatik. *Dua* (*doan*, *doe*, *do(h)ain*) lat. *donem*-etik, eratorri erromaniko baten zehar. Cfr. L. Michelena, FHV 414. *Eme* “hembra” lat. *femminam*-etik, ikusia dugunez, erromanikoaren (*femme* / *hemme*) zehar. Cfr. LEEE, 107. SU-NABA-AU-SU-NO-UA-EME. Aportaturiko hitzetatik *naba* (gazt. *nava*, *Navacerrada*, *Navaleno*) eta *eme* “hembra”, euskarara beste esparru linguistikoetatik, aro historiko berantean, helduak.

III) "Kadesh-ko ustezko guduaren" papiroa euskaran zehar

Testuak W. Budge-ren *An Egyptian Hieroglyphic Reading Book* liburutik eskaintzen dizkigute gure autoreek. Esaten zaigunez, zehar transliterazioa W. Budge berarena da. Goleko kasuetan bezala, proposaturiko hitz-andanatik euskal lexikoan mallegu latino-erromaniko dena aztertzer mugatuko gara, ohar fonetiko eta morfo-sintaktikoak ere kontuan izanik.

Atal honetan proposatzen zaizkigun testuak oso luzeak dira, eta, soilik, eztabaldagarri diren elementu lexikalak ekarriko ditugu azterkizunera.

a) 379 orriko bigarren testuan *Aka* (gazt. *aca(bar)*), *naza* (euskarara beste geruza zabalago batetik etorria (Corominas, op.c.411), eta *nata* (lat. *notam* "mancha", "peca" ("pecado" zentzu erlijiosoan hemen); jatorriz berantak dira. Sintaktikoki, bestalde, onartezina "en la madre" AMA-ENE batetik itzultzea, *ene* hori (kasu inxiboan) "amarengan" (edo eta **ama-(e)n*) batetik urrun dagoelako. Orri bereko hirugarren testuan, bestalde, *ema* (lat. *femminam*, errom. *hemme, femme*), *senti* (lat. *sentire*) eta *naza* (ikus gorago hitz bera) mallebu berantak.

b) 380 orriko lehen testuan *ema* (lat. *femminam* eta *femme, hemme, hemma* errom.) mallebua euskaran. Morfologia eta sintaxiaren aldetik "en la madre" **ama-n ene* batetik itzulita –euskaratik inxiboan desitxuratuz, eta "ene" (*e)n* horretan bizidunekin erabiltzen den -(*e)n / -engan / (ren)gan* bat ordezkaturaz–. Orri bereko hirugarren testuan, berriz, *naba* eta *man*; bat zaharragoa, eremu ez-latinokoa, gaztelaniaren esparruan *Navacerrada, Navalcarnero* toponimoetan ematen dena (cfr. Breve Dic.Et. 412); bestea *man* ("autoridad" konzeptuaz); adierazi dugunez, gazt. *man(dar)*-en ildokoa da, eta, beraz, oso beranta euskararen corpus lexikal baterako.

c) 381 orriko lehen testuan *damu* (lat. *damnum*, gaztelaniaz *daño* eta euskaraz "arrepentimiento" esanahiaz). Bigarren testuan, berriz, *ema* "hembra" (lat. *femminam*-etik formula erromanikoen zehar). Bertan, oralindik, NAI-NO ("voluntad-donde"), SAR-ENE ("entrad-en") moduko ausarkeria morfo-sintaktikoak.

d) 382 orrian, bigarren testuan, *baratu* ("parar") eta *ema* ("hembra") mallebu latino-erromanikoak. Adieraztekoa hemen beste gehienetan sinkopaturik azaltzen den *bara* delakoa, partizipioaz

osaturik agertzen dela, latinarekiko erreferentzia nabarmenago utziz (hots, lat. *paratum*, euskaraz *baratu*, gurean hasierako oklusibaren ozenduraz). Hirugarren testuan, berriro, *ema* "hembra" bi aldiz, eta *baratu* "parar, detener". Bi testuetan, gainera, oztopo morfo-sintaktikoak.

e) 383.etik 387.rainoko testuetan *eme* ("hembra", errom. *femme*, *hemme*), *damu* "arrepentimiento", lat. *damnum*), *naba* (gzt. *nava*), *naza* (gzt. *nasa*) moduko malleguak. Ez gara ENE-NAI-IREN (387 or.) ("en-decreto-castrado" gisako perpaus-zatien arazo morfo-sintaktiko eta semantikoak aztertzen sartuko.

IV "Errege-gorteko kontuen" ustezko papiroa

Liburuaren egileek eskaintzen diguten testua Gardiner-ek bere *Egyptian Grammar*-ean jasotakoa da. Ez gara papiroko hieroglifikoan testuan sartuko, zehazki, baina itzulpenak eta proposaturiko euskal hiztegia, gaingiroki, behatuta, zailtasunak atzematen ditugu lexikoa eta fonetikaren arloan, batez ere. Bataz beste, testuetan, berriro, *bara*, *nata* (lat. *notam*-en aldakia) *damu*, *xahu* (lat. *sanum*-etik euskarara, cfr. L. Michelena, FHV 414), *mana* (lat. *mandatum* > eusk. *manatu*, gzt. *man* (dar) bezalako mallegu latino-erromanikoekin topatzen gara.

5.- Bereberra, egipziera eta beste hizkuntza usko-mediterraniarren erlazioa

Liburukiaren XVI. atalean izenburuan alpaturiko hizkuntzen erlazioez da solasa, eta lau orritan hitz-andana batzuen ahaidetasun-taulak eskaintzen zaizkigu. Ez dugu gunerik hitz-andana hain handia aztertzeko (bertako anitz, bestalde, ikusia dugu). Gu artikulu honetan euskal lexiko tradizionalak –latina eta hizkuntza erromanikoen alde tik– jasan duen arrastoa atzematen ahalegindu gara. Alpaturiko tauletan, laurdena baino gehiago, latin eta erromaniko da jatorriz, eta zerrendako beste hitz askoren euskararekiko ahaidetasuna galdeki-zun geratzen da.

Hona orain arte ez azalduko tauletako hitz bakan batzuen ibilbidea (*koba*, *zuku* (jugo, agua caliente?), *kaxa*, *kitu* (*kitto*)... delakoena bezala):

KOBA "cueva", lat. *covam, gazt. "cueva", gurera erromanikotik. Cfr. LEEE, 135. *Kuba*, batzuetan *kua*-en aldakia (kasu horretan ere lat. *cunam*-en lldoa kontsideragarri).

ZUKU "agua caliente". Baldin "jugo" bezala interpretatuko balitz, lat. *succum*-etik ohiko aurredotsala eta bokalarteko herskariaren gorketaz. Cfr. LEEE, 40,43,46.

KAXA "caja, ataúd". Dударик gabe, lat. *capsa*-tik, nahiz erromanikoaren bidez -fonetikoki gurea gazt. *caja* baino zaharragoa dela. Cfr. Corominas, Breve Dic.Et. 117.

KITU "en paz". Gure ustean, *kitto*-ren aldakia, euskarara gazt. *quieto*-tik etorria (gure formulian diptogoa ezabatu eta kontsonantea busti delarik). Cfr. LEEE, 178.

Golko kritikara egotzita, ez genduke luzatu nahi ondorioetan. Gure ustean, *Egipcios, bereberes, guanches y vascos* liburukiaren tesia oraingoz probakizun dago, kasuan kasu, aportaturiko testu eta perpausen edukia euskararen zehar kolokan geratzen balta, eta ez, sollik, euskararen geruza lexikal berandutik (hots, jatorriz latinoa eta erromanikoa den aldetik), balta morfologia eta sintaxiaren eremutik ere.

Sarreran adierazten genuenez, Europako hizkuntza-leinuetan euskarak mantentzen duen isolamenduak ez du legeztatzen inor teoria ausartetara lerratzea. Beraz, euskara -mendeetako vasco-iberistentzat bezala- halako ondare linguistikoko esoterikoa da, guztiz aparta geruza kultural bitxi bezala; ezaugarri horrek, ordea, ez du legeztatzen inor esoterismo horretatik esparru oso zabaleko ondorioetara ablatzea. Gure ustean, oraindik bide anitz gelditzen da euskararen inguruan pretentsio gehiegizko teoriak eralkitzeko, eta euskaldunok, ondorioz, edozein gure hizkuntzaren misteriora errespetuz eta tentuz hurbiltzea eskatzen dlogu.

BIBLIOGRAFIA

AGUD Manuel, *Elementos de cultura material en el País Vasco*. Edit. Haranburu, 1980.

AGUD M., TOVAR A., *Diccionario etimológico vasco (anexos varios de ASJU, Diput. Gulpúzcoa)*.

- ECHENIQUE M.Teresa, *Historia lingüística vasco-románica*. Edit. CAP.
- MEYER-LÜBKE W, *Romanisches etymologisches wortebuch* (REW). Heidelberg 1935.
- MICHELENA L., "Nota marginal sobre la huella en la lengua vasca", *FLV* 4, 5-25.
- IDEM, "El elemento latino-románico en la lengua vasca", *FLV* 6, 183-209.
- MUJIK A L.M., *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*. Edit.Sendoa, 1982, (tesi doctorala).
- IDEM, "El consonantismo en préstamos románicos al euskara", *FLV* (1984) 5-54.
- ROHFLS G, "La influencia latina en la lengua y cultura vascas", *RIEV* 24, 323-348.
- SCHUCHARDT H. "Baskisch und romanisch", in *ZRPH* beih. VI.
- TOVAR A., *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Alianza Edit. 1980.
- WARTBURG W. *Französisches etymologisches wörterbuch*, Tübingen- Basilea, 1948 (varios tomos).